



# ARGIA

ZAINTZA PUBLIKO ETA KOMUNITARIOAREN ALDE

## **Greba feminista orokorra**

24-29. orrialdeak



#2847 | 2023 / 11 / 19 | 4,00 €



**Mendebaldeko Saharan  
energia espoliatu  
nahi du Marokok**

12 | NET HURBIL



**Rote Zora,  
Alemaniako talde  
armatu feministaz**

14 | CHRISTINE LAMBERTY



**Argentinako  
hauteskondeek  
utzitako ikasgaiak**

34 | NAZIOARTEA

DATORREN ASTEKO ARGIAREKIN...

**LARRUN** #290  
HILABETEKARI MONOGRAFIKOA



GAIZKIAREN HUTSALTASUNA

NOLA ERREPRODUZITZEN DA GAUR EGUN?

ARGIA.EUS/LARRUN

## Panorama

- 04 | ASTEKO ARGAZKIA
- 06 | AKTUALITATEA
- 07 | MATERIALISMO  
HISTERIKOA
- 07 | EZ HANKA EZ BURU

## Iritziak

- 19 | IKER IRAOLA
- 20 | ANE ABLANEDO
- 21 | BEÑAT MUGURUZA
- 21 | EVA PEREZ-PONS
- 22 | JOSE IGNACIO ANSORENA
- 23 | MATI ITURRALDE

## Finkoak

- 38 | BIZI BARATZEA
- 42 | ARGIA KOMUNITATEA
- 43 | DENBORAREN MAKINA
- 48 | KULTUR-KRITIKAK
- 51 | DENBORA-PASAK
- 52 | ARGI-KONTRA:  
ANTXON JAUREGI
- 54 | EZETZ ASTEA ONDO BUKATU



AZALEKO ILUSTRAZIOA: SHU OTERO

SAILLEN GOIBURUETAKO ILUSTRAZIOAK: CLIPART COURTESY FCIT



WSRS

### 12 | NET HURBIL

Marokok aurreikusita dituen berriztagarrien proiektu erraldoien %81 sahararrei lapurtutako lurretan eraikitzeko asmoa du. Batez ere eolikoak eta hidrogeno berdea dira Marokora eramateko saharar lurretan ustiatu nahi dituztenak. Urko Apaolazak azaldu du gaia Net Hurbil atalean, eta baita ere azaldu du zertan den Fronte Polisarioaren eta Marokoko armadaren artean gori gori den gerra, hedabideen fokutik kanpo gertatzen ari dena.

## Elkarrizketak eta erreportajeak

14 | PERTSONAIA | CHRISTINE LAMBERTY

**“Orain mundu guztiak izan nahi du feminista, baina emakumeen aurkako indarkeriak ez du etenik”**

Danele Sarriugarte

24 | FEMINISMOA | GREBA OROKORRA

**Zaintza eredia berrasmutzen**

Onintza Irureta

30 | TEKNOLOGIA

**Lehenengo mugikorra noiz, nola eta zein baldintzapean?**

Mikel Garcia

34 | NAZIOARTEA

**Argentinaren aienea**

Uxue Apaolaza

44 | KULTURA | MARTÍN BENCHIMOL

**“Dekadentzian dagoen aristokrazia argentinarrak asko hausnartu dut filmean”**

Ixone Santamaria

### Jabetza

 Komunikazio Biziagoa  
S.A.L. Ametzagaña Taldeko partaidea

### Erredakzioa

Amaia Lekunberri, Axier Lopez, Eneritz Arzallus, Estitxu Eizagirre, Gorka Peñagarikano, Izaro Villarreal, Jenofa Berhokoirigoin, Jon Torner, Lander Arbelaiz, Leire Artola, Manex Moreno, Mattin Azpiroz, Mikel Garcia, Onintza Irureta, Pello Zubiria, Urko Apaolaza, Xabier Letona, Zigor Oleaga

### Diseinua

Maitane Gartzandiandia

### Argazkilaria

Dani Blanco

### Produktzioa eta inprimaketa

Antza S.A.L.

### Administrazioa

Jone Arzallus, Mari Karmen Loiarte

### Salmenta

Karlos Olasolo, Pello Basurto

### Banaketa

Olatz Korta

### Azoka

Mikel Olabide

### Idazkaritza

Aloña Soraluze, Bego Zuza

### Web garapena

Asier Iturralde

### Informatika

Iametzta interaktiboa, S.L.

### Lege gordailua

SS 837-2012

### ISSN

0213-909X

### Batzorde parekidea

72562 E

### GUREKIN HARREMANETAN JARTZEKO

#### Posta elektronikokoak

 komertzial@argia.eus  
komunitatea@argia.eus

#### Telefonoa

943371545

#### Gipuzkoa

Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria

#### Nafarroa

 Gazteluko Plaza 44, 3. eskuina,  
31001 Iruñea

Ametzagaña taldeko kidea da ARGIA honako enprekin batera:



## Doan eta libre

ARGIAko edukiak kopiatu, moldatu, zabaldu eta argitaratu ditzakezu, gure egiletza aitortu eta baldintza beretan eginez gero.



Lizentzia hau baliagarria da testuontzat eta, argazkien eta ilustrazioen kasuan, ARGIAren sinadura daramatenentzat soilik.


 EKONOMIA SOZIAL ERALDATZAILEAREN  
SAREKO KIDE GARA

 ARGIA HIZKUNTZA POLITIKARAKO  
SAILBURUORDEZAK DIRUZ LAGUNTZEN DU:

**EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO**

 KULTURA ETA HIZKUNTZA  
POLITIKA SAILA





## Putodefendatzeko eskubidea

Fatxalekodun, Cayetano, opuskume eta III. Reicheko nostalgikoak elkar hartuta, Trumpena egitera jolasten ari dira kalean. Lehen Katalunian eta Euskal Herrian supremazismo nazionalista zena, orain herritarren ezinegona eta amorrua ei da. Hauteskundeen emaitzei legitimitatea kendu, faxisten indarkeria justifikatu eta beren armada erlijioso, polizial eta judiziala mobilizatu dute. Pederasten sektako buruzagiek diote amnistia Jaunaren hitzaren aurka doala. Konstituzionalean gotortutako epaileek Espainiaren komodina aktibatu dute: "terrorismoa". Sanchez "diktadorea terroristen laguna" da, eta Tsunami Demokratikotik lau urte pasa ostean, justu pasa den astean jabetu egin dira poliziak: terroristak dira Puigdemont lehendakaria eta Jesus Rodriguez kazetaria, besteak beste. Israelen bere burua defendatu eta besteena mozteko eskubidea badute, espainiar ultraeskuinak nola ez du ba defendatuko bere Espainia, beraiek antolatuta eta sortutakoa? Goiak eta beheak jota omen daude, "Espainiaren amaiera" datorrelako. Eta arazoa da hori ez dela egia. Tamalez.

📍 Espainiar eskuindarren elkarretaratzea, Iruñean. **JAGOBA MANTEROLA / FOKU**

**AXIER LOPEZ**

# Indarkeria bikarioa salatu dute Lizarran

 MATTIN AZPIROZ PAGOLA

**M**ateo Apestegi 7 urteko haurraren eta bere aitaren gorpuak aurkitu zituzten azaroaren 7an Urbanan, Nafarroan. Aurreko ostiraletik zeuden desagertuta, eta astelehenean haurraren amak salaketa jarri zuenetik zebiltzan haien bila. Autopsiaren emaitzen arabera, aitak semeari helduta salto egin zuen amildegitik behera. Haurraren gurasoak bananduta zeuden, eta indarra hartu du biolentzia bikarioaren hipotesiak, hau da, aitak haurra hil zuela amari min emateko.

Aurkitu bezain laster, gorpuak autopsiak egitera eraman zituzten Auzitegi Medikuntzako Nafarroako Institura. Emaitzen arabera, baztertu egin dute haurra itota hiltzea, eta gorpuetan ez dute gai toxikoen arrastorik aurkitu. Halaber, haurraren gorpuak zauri gutxiago zituela frogatu dute, kontuan hartuta



hilotzek 200 metro inguruko altueratik eroritako lesioak zituztela. Ondorioz, litekeena da aitak haurraren erorikoa arindu izana bere gorputza besarkatuta.

Emaitzak ikusita, biolentzia bikarioaren teoriak indarra hartu du. Emakumei eraso egiteko seme-alabak erabiltzea da indarkeria mota hau. Gainera,

adituen arabera, haurrengan alboondorioak izaten ditu, eta haien amek pairatzen duten indarkeriaren biktima zuzenak dira. Genero Indarkeriaren aurkako Espainiako Gobernu Ordezkaritza ari da kasua ikertzen.

## SENIDEEI BABESA

Lizarrako Udalak “babesa eta elkartasuna” adierazi die hildakoen senide eta gertukoei, baita hezkuntza-komunitateari ere. Elkarretaratzea egin zuten udaletxearen aurrean, eta udal kontseiluko kideek eta tokiko biztanleek parte hartu zuten. Horrez gain, ehunka lagunek Lizarrako Koroatze plaza hartu zuten, Lizarrako Mugimendu Feministak deitutako elkarretaratzean. *Indarkeriarik gabeko bizitzak orain* lelopean, indarkeria bikarioa salatu zuten. ●

# EHU eta osasun aseguru pribatuak

 ZIGOR OLABARRIA OLEAGA

**I**MQ Institutu Mediko Kirurgikoak Unibertsitateko langileen eskura jartzen du bere osasun-aseguruak prezio merkeagoetan kontratatzeke aukera”. Horrela dio EHU Euskal Herriko Unibertsitate publikoko langileek administratziotik jaso duten mezuak, ARGIAK eskuratu duen informazioaren arabera. Eskaintza 8.844 langileri eta beren senideei zuzenduta dago, hamarnaka mila herritarri, beraz. Osasun publikoaren aldeko eta pribatizazioaren aurkako eztabaida eta mobilizazio betean heldu da eskaintza.

Araba, Gipuzkoa eta Bizkaiko unibertsitate publikoa osasun aseguru pribatuak sustatzen ari da bere langileen artean. EHU erakunde publikoa da, Jaurlearitzaren administraziopean dagoena, eta bere langileak administrazio publikoko langileak dira.

Milaka langile horiei ez ezik, eskaintza “bizikidetzako familia-unitate” osoari zuzenduta dago. Dokumentuak zehazten duenez, horiek izan daitezke: “Ezkontideak edo izatezko bikotekideak; gura-

**EHUk milaka langile publikoren artean aseguru pribatuak sustatzea Osakidetzaren aurka eta enpresa pribatuen mesedetan doa**

soak, seme-alabak; ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen gurasoak, seme-alabak; adoptatutako edo modu iraunkorrean edo adopzio aurretik hartutako pertsonak”.

## OSASUN PUBLIKOA ALA PRIBATUA?

Osasun publiko ala pribatuaren inguruko eztabaida oso bizi dago Euskal Herrian, bereziki pandemiaren geroztik. Osakide-

tzako langileek eta sindikatu guztiek zerbitzu publikoaren murrizketak salatu dituzte kalean, eta pribatizazio asmoekin lotu dituzte Jaurlearitzaren eta Osasun Sailaren politikak. Hainbat herritan sortu diren Osasun Publikoaren Aldeko Herri Plataformen aldarrikapen nagusienetakoa da zerbitzuaren pribatizazioa saihestea eta zerbitzu publikoa indartzea.

Jaurlearitzak eta Gotzone Sagardui Osasun sailburuak ukatu egiten dute pribatizazioan sakontzen ari direnik edo horretarako asmorik dagoenik. Azaroaren 8an Osakidetzaren 40. urteurrena ospatzeko ekitaldian hitza hartu zuen Urkullu lehendakariak. “Pausoz pauso lortuko dugu aurrera egitea, baina zentzuzko eskakizunak eginez eta katastrofismorik gabe izan beharko du”, adierazi zuen, Osakidetza herritarren “altxorrik preziatuena” dela defendatu ostean. Bada, EHUren moduko erakunde publiko batek milaka langile publikoren artean aseguru pribatuak sustatzea altxor horren aurka eta enpresa pribatuen mesedetan doa. ●

## MATERIALISMO HISTERIKOA

# Madrildik dator notizia



UXUE APAOLAZA LARREA

Osogutxi ikusten zen jada “Antifaxista”, horrela, zuzenean, “Antifascista”, Madrilen, biseretan, kamisetetan. Eta begiratzen zitzaizen antifaxismoa nostalgia moduko bat balitz bezala (bisera bat, kamiseta bat), izan ahal balitz bezala. Eta orain loratu dira Madrilgo zentroan eta, beraz, eta, azkenean, eta, batez ere, komunikabideen zentrorra, ez mamuak ikusten zituzten antifaxistak, mamuak berak baizik, mota guztietako faxistak. Nondik atera dira?

Ferrazen, PSOEn egoitzaren aurrean putomarciónek eta veteatupaisek ikuskizun pornografiko hori antzeztzen duten bitartean, Madrilen bertan, urteurren bat bete da isilago. Carlos Palominoren hilketarena. Metroan hil zuen faxista batek elkarretaratze arrazista bati aurre egitera zioala. Izan ere, auzoetan, norbait ari zen hain *demode* zegoen faxismoari aurre egiten, eta hargatik isilean ordaintzen (ikus Alfonso-kasua ere, bestela). Arazoak auzoetako migranteentzat zirenean, inor ez zen tertulietan asaldatzen. Madrilgo erdigunera joan behar izan dute, eta gorbatadunen bat izutu, batzuk “hori faxismoa da”, ohartzeko. “Hau eskandalua, hemen jokatuta egiten da!”

Irene Zugastik artikulu bat idatzi du *El Salto* hedabidean: “*Lo de Carlos*”. Eta, orain, faxistak denon bistara atera direnean, 2007an metroan hil zuten belaunaldi hura aldarrikatzen du. Orain ere, 2023an, badago bazterrean borrokatzen den Madril bat, auzoetan, argindarrrik gabe batzuetan (Cañada Real). Mamuen kontra. Gorbatadunen bat izutu arte, ez ditugu ikusiko komunikabideetan. ●

## EZ HANKA EZ BURU

ADUR LARREA

www.adurlarrea.com



## Euskara

Epaitegien eraso euskarafoboei erantzuteko protokoloa aurkeztu du Euskalgintzaren Kontseiluak: “Oldarraldiaren aurrean hizkuntza-eskubideak babesteko Protokoloa”. Erasoen aurrean “antolatuta eta saretzeko balioko du”, adierazi du Kontseiluak.

## Laborantza

Lurrarna egin dute joan den asteburuan, Iparraldeko laborantza iraukorren saloia. Aurten, emakumeak izan dira protagonistak: “Emazteek laborantzian leku garrantzitsua izanik ere, aintzietan gizonen itzalean izan dira”.

## Komunikazioa

35. urteurrena ospatu zuen Euskalerria Irratiak, joan den astean. 1988ko azaroaren 7an egin zuen lehen emisioa Iruñerriko irratia eta hasieratik izan ditu ardatz euskara eta komunitatea. Irratiak aurki “pauso garrantzitsua” emango dutela iragarri dute.

## Ber-/ bir-, des-



ULA IRURETAGOIENA

Urrian eta azaroan zehar arkitekturari buruzko erakusketa, hitzaldi, bisitak eta lantegiak burutu dira, Euskadiko Nazioarteko Arkitekturako Bienalaren baitan. Zenbateraino iritsi da egitaraua, arkitektoa ez den publikora? Jakin nahiko nuke hau irakurtzen ari zaretenen artean zenbatek erantzun dezakeen Arkitekturako Bienalaren berri izan duela eta zenbatek konta dezakeen ekitaldiren batean egon dela. 2023koa 4. edizioa da eta arkitektura kalera ateratzeko asmoarekin jarri da martxan. Baliteke Donostia edo Bilboko paseoa pabiloi-eraikuntza deigarri batzuk topatu izana, eta bertara eraman dira, literalki kalera, programazioaren ekintza asko. Aurrez informatzerik ez bada, aurrez topatzeko aukeran apustua eginaz.

Bienalaren aurtengo edizioaren leloak dio, berreraiki, berpiztu, berrasmatu. BER-/BIR- atzizkiak arkitekturaren oraina azpimarratu nahi du: berriz egin, orain artekoari atzera eta aurrerako mugimendua eragin. Bienal baten helburua "non garen" hausnartzeko lekua da, garai historikoak eskaintzen dituen begirada "aurreratuenekin" oraina kontrastatzeko abagunea. Eta egitekoa askotarikoa eta oparoa omen da: birpentsatu behar da espazioak nola erantzun ahal dion zahartzen ari den gizarteari, hormigoia ahazteko garaiari egur eta material birziklatuen eraikuntzak ordezkatu beharko dio, emakume erreferenteen sorrera eta berrreskurapenak egiteko moduak birkokatu beharko ditu, hiriak itzal/freskaleku, energia aurrezpen eta nondik jango dugun galderei ekin beharko dio, horrekin batera landa-gunearen eta baserriarraren papera eguneratuz, arkitekturaren irakaskuntzak erronka berrietarako ikaspedagogiak erradikalizatu beharko ditu, eta etxebizitzak domestikotasun garaikideari erantzuten ikasi beharko du. Seguruenik, berregiten hasi aurretik ulermen zurrin asko desegin beharko dira: arkitektura bera bakarrik ez dela eraldaketa bat mugitzeko gai izango eta ezinbestean beste jakintza esparruekin eta jendearekin lanean egin beharko duela. ●



LURRAREN ALTXAMENDUAK

## Marienearaino eraginen duen epaia

JENOFA BERHOKOIRIGOIN

Lurraren Altxamenduak sarearen desegitea deuseztatzea erabaki du Frantziako Estatu Kontseiluak. Mugimendu horrek "ondasunen aurkako indarkeria" probokatzen duela berretsi arren, ilegalizazioa ez litzateke "neurri egokia, beharrezkoa eta egokitu". Berri ona da dozenaka elkarte batzen dituen herri dinamika ekologista horretako militanteentzat. Berri ona da, oro har, ekologismoarentzat, klimaren erronkak eskatzen duen erradikaltasunaren eta herri-babesaren elkarretarako bidea asmatu duelako duelako dinamika berritzaile horrek. Agroindustriaren kontrako borroka "ekoterrorismotzat" joa den honetan, berri ona da Amalurrarentzat eta bere alde dabilzan laborarientzat. Berri ona da Sainte-Soline herrian uraska handien aurka elkarturikoentzat, Poliziaren errepresio bortitzaren ondotik (gerrako armen erabilpena, bi aktibista koman, 200 kolpatu, dozenaka traumatizatu...), borroka horren zilegitasunaren berrespena delako, nonbait.

Berri ona da ere 2024ko martxoaren 12an epaituko dituzten Ostia kolektiboko lau militanteentzat. Estatu Kontseiluaren ebazpena jakin baino bi egun lehenago atxilotu zituzten Ipar Euskal Herriko militantzian aspaldiko ezagunak diren lau lapurtarrak. Etxebizitzaren arloan dabilen Bouygues enpresaren Angeluko bulegoak "hondatzea" leporatua zaie. *Marienea ez hunki* lelopean, hogeitabat lagun sartu ziren Angeluko egoitzara iazko abenduan, lurrez eta lastoz betetako zego batzuekin eta Kanboko Marieneko lurretan enpresak duen eraikuntza proiektuaren maketa lurrez estali zuten. Horregatik epaituko dituzte. Berez arrisku handirik ez, baina, ezin jakin ikusirik Frantziako Gobernuak sustaturiko giro errepresiboa. Espekulazioaren aurka eta lurraren defentsan dabilen eragilea da Ostia, 2021eko Arbonako lurren okupazioan osaturikoa. Orduz geroztik, hor jarraitzen du, dela Senperen, dela Kanbon, behar-orduan legediaren babespean bideraturiko espekulazioaren logika salatzen. Ostia Lurraren Altxamenduak sarearen parte izanik, berri ona da Estatu Kontseiluaren ebazpena. Herritarren babesa duen ekintza izanda ere, ekintza sinbolikoa izanik ere, lurraren arazoak eta elikadura burujabetzaren beharrak zilegituriko ekintza izanik ere, "ekoterrorismoari" lotzeko argudio ezin hobea izanen zutelako Bouyguesen abokatuak eta prokuradoreak. ●



# 581.616

euro ordainduko dizkio aurten Osakidetzak Elizari, pazienteei arreta erlijiosoa ematearen truke. 2018tik 3,490 milioi euro jaso ditu Eliza katolikoak Osakidetzaren aurrekontutik, baina aurretik diru gehiago jasotakoa da: 1987an egin zuten lehen ituna.

# 2.500

bideo-grabazio katalogatu eta digitalizatu dira, euskal dantzari buruzkoak. 2015-2022 urteen arteko 31 dantza talde, erakunde eta norbanakoren bideoak dira. Kontsultagarri daude Eresbilen katalogo orokorrean eta Bilgunean.

# 9

orduz egin behar lukete lo gauero nerabeek gutxienez, aldaketa hormonal, metaboliko eta neuropsikologiko betean inportantea baita etapa horretan, baina ikerketek diote ez dutela nahikoa lorik egiten eta ondorioak dituela.

## “Pornografian, emakumeen aurkako indarkeria normalizatzen da”

### NEREA MELGOSA

Eusko Jaurlaritzako Berdintasun sailburua. Azaroaren 25eko kanpainarako, “Porno emakumeen aurkako indarkeriaren eskola bat da” leloa aukeratu du Emakundek.

2023-11-09



## “ZENBAT DIRU AURREZTU NAHI DA ESKOLAKO JANGELAN, BASQUE CULINARY CENTERREN GASTATZEKO?”

### HERNANIKO LANGILE IKASTOLAKO GURASOAK

Jangelako elikadura eta zerbitzua, baita eredu “inposatua” bera ere, salatu dute. “Gure haurren elikagaiak makroenpresen esku daude”.

2023-11-12

## “Ume palestinarrak ez dira hilko gizateriak huts egin dien sentsazioarekin; aldiz, ume israeldarrak bidegabekeria handi baten sentsazioarekin bizia galtzea beldurgarria da”

### CÉLINE PINA

Frantziako aholkulari parlamentarioa.

2023-11-09



# BIGARREN NAKBA BAT: 1948ko exodoaren oihartzunak

**MAHMOUD MUSHTAHA GAZATIK, CTXT-ENTZAT**

Artikulu hau CC by-nc lizentziari esker ekarri dugu.

**G**azako zibilen %70ek etxetik alde egin behar izan dute. Zaharrenek gogorarazi dute Israel erabiltzen ari den taktikak lehen hondamendian erabili zituen berberak direla.

Israelgo okupazio indarrek etengabe erasotzen jarraitzen dute Gazako Zerrendaren aurka, zibilen sarraski eta genozidio ekintza ugari eginez. Emai-tza tragikoa da: 11.091 lagun hil dituzte [azararen 11n]. Azaroaren 10ean, Israelgo armadak Al Shifa ospitaleari eraso zion, Gazako handienari, zeina milaka pertsonak babesleku zuten. Agintari gazatarren arabera, beste ospitale batzuk tankeek setiatuta daude. Aldi berean, Israelek beldurra areagotzen du, eba-kuatzeko eta hegoalderantz mugitzeko ohartarazpenak eginez eta Gazako herritarrak beldurtuz. NBERen kalkuluen arabera, Gazako biztanleen %70ak etxetik alde egin behar izan du dagoeneko.

73 urteko Abu Sameh Esleemek eta bere familiako 45 kideek etxea hustu eta oinez bost kilometroko bidaia egin behar izan dute. "Bidean, Al-Zahra hiriko paisaia osoa agertu zitzaigun, Gazako hegoaldean, eraikin guztiak suntsituak zirenen, inoiz existitu ez balira bezala".

"Gure etxebizitzaren barruan geunden, Al-Zahraako dorreetan. Nire seme-alabak eta bilobak bildu nituen, inguruko hainbat lekutan bizi zirenak. Bat-batean, Israelek dorreen aurkako aire-erasoak hasi zituen, 23 bat gutzira, eta orain guztiak hondatuta daude", dio agureak.

Esleem familiak etxetik alde egin behar izan zuen, gaeuz, Israelek haien aurka egindako aire-erasoen ondorioz.

Bide arriskutsuetatik ezezagunerantz ibiltzera behartuta, azkenean Al-Shifa ospitalera iritsi ziren. Israelgo tankeak ospitalera hurbiltzen ari zirela jakin zutenean, oinez joan ziren Gazako ekialdeko UNRWaren eskoletara iristeko.

Nahiz eta Israelgo indarrek etengabe ohartarazi eta zibilen aurkako dozenaka sarraskiak egin, herritar batzuek uko egin zioten beren etxeak uzteari, bigarren Nakba bat gerta ez zedin.

## 1948KO NAKBATIK BIZIRIK ATERAZEN, ETA 2023AN BESTE BATEN LEKUKO

82 urteko Mohammad Ashraf-ek 1948an Nakba bizi izan zuen. "1948ko gertaera berberak errepikatzen ari dira", dio. "Israel sarraskiak egiten ari da gure etxetatik alde egitera behartzeko, Nakban erabilitako taktikak kopiatuta. Orduan, sarraskiak egiten zizutzen herrietan, beldurra zabaltzeko eta herritarrak beste herrialde batzuetara ihes egitera behartzeko".

"Palestinar herriaren belaunaldi ba-koitzak okupazioaren ankerkeriei aurre egin behar izan die. Inoiz ez nuen aurreikusitako aitonarekin ikusi nituen sufrimendua eta desplazamendua orain nire bilobek jasango zituztela", azaldu du Mohammedek.

Beste ikuspegi batetik, Abdullah Nasrallah, hogeituroko gaztea, Gazan bizirauten saiatzen ari da, behin imajinatu zituen ametsen atzetik ibili beharrean.

"Amonak beti hitz egiten zidan Nakbaz eta 1948an izan zuen emigrazioaz, baina nik ez nuen inoiz imajinatu ere egin berak kontaktatzen zizkidan gertaerak biziko nituenik. Nire burua ez da gai

# OKUPAZIOA

## ISRAELEN LURRALDE KONTROLA

Bere historia laburrean, Israelgo Estatuak lurralde palestinarra ez ezik, inguruko lau herrialdeetatik hiruren lurralde subiranoa ere okupatu du. Gaur egun, Sirian, Libanon eta Palestinan lurrak okupatzen jarraitzen du Israelek.

\* Israelek Shebaako etxaldean eskualdea okupatzen jarraitzen du, Libanoko hegoaldean.


\*\* Israelgo Estatuak Palestinako lurretan ezarri zen, eta 700.000 jatorrizko herritar lekualdarazi zituen.

VP DATA SKETCH

bizitzen ari garena ulertzeko, bi aldiz salbatu naiz heriotzatik", dio Abdullahek.

Bidegabekeria historikoak bizi izan zituen adineko jendearen eta egungo amesgaiztoari aurre egin behar dion belaunaldi gazteenaren ikuspegiek agerian uzten dute belaunaldiz belaunaldi Palestinako herriari eragindako trauma. Egoeraren larritasuna agerian

# AZIOAREN HISTORIA



ITURRIAK [bit.ly/vp-occupied](https://bit.ly/vp-occupied) 2017 Ekaina •



[fb.me/visualizingpalestine](https://fb.me/visualizingpalestine) •



[@visualizingpal](https://twitter.com/visualizingpal)



Itzulpena: ARGIA

Visualizing Palestine ez da jatorrizko itzulpenetik egon litezkeen akatsen erantzule

uzten du egungo sufrimendutik ihes egiteko Abdullah Nasrallahk adierazi digun hiltzeko gogo lazarriak.

Negarrez ari dela, hala esan digu: "Gaur nire bizitzako egunik zailena bizitzen ari naiz. Gaurkoa heriotza baino zailagoa izan da niretzat. Nahiago nuke sufrimendu eta umiliazio hau ez bizitzeko hil izan banintz. Nahi dugun gauza bakarra amesgaizto hau amaitzea da".

Israelek dio korridore segurua ezarri duela zibilak Gaza iparraldetik hegoaldera joan daitezen, baina Euromediterraneaneko Giza Eskubideen Behatokiak kontra egin dio baieztapen horri, eta adierazi du Israelgo armadak korridore segurua iragarri izana taktika militar estrategikoa dela zibil palestinarrei erasotzeko.

Behatoki horren arabera, Israelgo armada hiriko eta iparraldeko eskual-

deetako biztanleak presionatzen ari da beren bizilekuak hustu ditzaten, eta Gazako Zerrendaren erdialdera eta hegoaldera bideratzen ditu. "Korridorea" trafikoaren arteria nagusia zehar ezarri dutela diote, Salah al-Dineko errepi-dean, ordu jakin batzuetan, 9:00etatik 16:00etara. Baina ostiralean zibilak bonbardatu zituzten, bide horretatik ihes egin nahian ari zirenak. ●

# PALESTINAN BEZALA MENDEBALDEKO SAHARAN ERE, OKUPATZAILEA BETI ESPOLIATZAILE

Mendebaldeko Saharako Smara hirian urriaren 29an jaurtigaiekin izandako eraso ezezagun batek gorenean jarri du Fronte Polisarioaren eta Marokoko armadaren arteko gerra. Gaza bezala, harresi luze batez inguratuta dago herrialde osoa, eta Israelek palestinarrekin egin bezala, Marokok baditu bestelako interesak hango herritarrak sarraskitzeko: berriki jakin dugu bere azpiegitura energetikoen %81 kokatu nahi dituela lurralde okupatuan.

 URKO APAOLAZA AVILA

Okupatutako Mendebaldeko Saharan dago 60.000 biztanleko Smara hiria, Marokok lurraldea kontrolatu eta Fronte Polisarioa urrun mantentzeko eraikitako "lotsaren harresitik" –munduko luzeena da, 2.700 kilometroekin– oso barrura. Urriaren 29ko goizaldean lau leherketa nabaritu zituzten hango biztanleek, eta hildako bat eta hiru zauritu izan ziren. Gazako genozidioaren zurrunbiloan, nazioarteko hedabideetan apenas ikusi dugu berririk gertatutakoaren inguruan, eta sahararren egoera jarraitzen duten hainbat webgune eta agentzia independenteri esker dakigu leherketen inguruan zabaldu den apurra.

ECSaharai.com atariaren arabera, ez dago garbi erasoaren egilea zein den. Iturri militarrek aipatuta dio jaurtigaiekin arrastoek ez dutela bat egiten Saharako askapen mugimenduak erabili ohi dituen eta jatorri sobietarrekoak diren Grand BM21 misilekin, iristeko ahalmen murriztagoa dutenak. *Equipe Media* hedabideak, berriz, leherketen lekuko zuzena izan zen GKE bateko kidearen hitzak jaso ditu, eta baztertu egin du Marokoko base militar batetik bidalitako droneak izan zirenik.

Fronte Polisarioak, bere aldetik, ukatu egin du erasoaren egiletza. Sahara Press Service (SPS) agentziak egunero argitaratzen dituen gerra parteetan –arabiarrez, ingelesez, frantsesez, gaztelaniaz eta errusieraz itzultzen ditu– ez da Smara hiriaren kontrako erasorik aipatzen urria-

ren 29an. Mendebaldeko Saharako Defentsa ministerioak egun berean jakinarazi zuen Smarako base militar marokoarren eta aireportuaren kontrako operazioak egin zituela, baina "ez hiriaren kontra".

Hala ere, Marokoko Gobernuak Fronte Polisarioari egotzi dio "zibilen kontrako atentatu terrorista" egitea, eta eraso gertatu bezain pronto Minurso erreferendumaren aldeko NBEren misioiko kideak gonbidatu zituen tokia aztertzeraz. Harrigarria da Aziz Ajanuch-en gobernuak –Marokoko Lehen ministroa eta petrolio magnatea– orain jarrera hori edukitzea, behin eta berriz isildu izan baititu Polisarioaren ofentsibak 2020an gatazka armatua berpiztu zenetik.

Hain justu biharamunean, urriaren 30ean, NBEren Segurtasun Kontseilua elkartu zen Minursoen misioa berritu ala ez erabakitzeko –baiezkoa gailendu zen aldeko hamahiru botorekin–, eta Smarako eraso Marokok presioa egiteko erabili duela salatu dute medio sahararrek.

Mendebaldeko Saharako Errepublikako presidente eta Fronte Polisarioko idazkari nagusi Brahim Galik NBERi eskatu dio bere "konpromisoekin eta erresoluzioekin konplitzeko" eta Maroko egin du egoeraren arduradun: "Saharar herriaren aurka egin dituen krimen izugarrien (bahiketak, nahitaezko desagerpenak, atxiloketa arbitrarioak eta epaiketa sumarioak) erantzule da", esan du Auserdeko *wilaya* edo kanpalekuan emandako hitzaldian.

Artikulu hau idazterako orduan, SPS agentzia albiste gero eta gehiago ari da zabaltzen Saharako harresiaren inguruko operazio militarrez: azaroko lehen egunetan leherketa gehiago izan ziren Smaran eta beste hainbat hiritan; APLSko (Askapenerako Herri Armada Sahararra) agintariek esan dute artilleriazko bonbardaketek gain, lurretik zuzenean ari direla eraso egiten Marokoko armadaren kokalekuei, eta azken gerra partean, 906.ean –egun horiek igaro direlako 2020an su-etena amaitu zenetik– ziurtatu dute Amgalan eta Farsían "giza galerak eta galera materialak" eragin dizkietela. Baina horretaz txintik ere ez Europako prentsan.

Hori gutxi balitz, Gdeim Izik Taldeko preso politikoak gose greban jarri dira. 2010ean poliziak bortizkeria handiz desegindako "Duintasunaren Kanpalekuan" atxilotutako jendea dago talde horretan.

## MARTXA BERDETIK, HIDROGENO BERDERA

Bistan da gatazka armatuak koska bat egin duela gora, baina Marokok "gerra" hitza saihestu nahi du, horretarako zentsura, tortura, hilketak eta bonbardaketak erabili behar baditu ere sahararren kontra, iraganean napalma eta fosforo zuria erabili zituen gisan. Baina zer bilatzen du basamortu horretan? Galik berak jarri digu lorratzaren gainean: "Krimen guzti horiei gehitu behar zaie gure baliabide naturalen espoliazio indiskriminatua".



**NATUR BALIABIDEAK** Marokok Mendebaldeko Saharan berriztagarrietatik sorturiko energia Marokora eta inguruko herrialdeetara esportatu nahiko luke, Europar Batasunera barne. Irudian, Siemens-Gamesa multinazionalaren kontrako sahararren protesta bat 2022an. Goiko mapan, Marokoren okupazioa eta "Lotsaren harresia". / WSRS

Atlantikoaren ertz zabal hori zutzea da Marokoren asmoa, Israeliek Palestinako lurralde okupatueta gas naturalarekin egin nahi duen bezala. Mohamed VI Marokoko monarkak garbi hitz egin du Martxa Berdearen urteurrenaren diskurtsoan –oraingoa bai, Europa Press eta antzeko agentziek oihartzuna eman diote–: itsasoan petrolio prospekzioak egin eta ura gatzgabetu nahi dute, besteak beste.


Marokoko Gobernuak 2024ko energia berriztagarrien finantza lege-proiektuari buruzko txostena egin du publiko berrikitan, enpresen eta gobernuen interesak ikertzen dituen Wester Sahara Resource Watch (WSRS) erakundeari esker iritsi zaiguna, bere webgunean baitago irakurgai. Txostenaren arabera, Rabatek aurreikusita dituen berriztagarrien proiektu

erraldioen %81 Mendebaldeko Saharako "Estatuaren jabetza pribatukoak" diren eremuetan daude, sahararrei lapurtutako lurretan alegia.

Batez ere hidrogeno berdeari eta energia eolikoei loturiko azpiegiturak dira: 371.000 hektarea Marokok Aaiún-Sakia El Hamra izendatutako eskualdean –Mendebaldeko Saharako iparraldean– eta 800.000 hektarea Dakhla-Oued Eddahab eskualdean –hegoaldean–. Atzean dauden enpresa asko Mohamed VI.aren ingurukoak dira, baina badaude Europako batzuk, tartean Acciona multinazional espainiarra. Hori ez da harritzekoa: lehendik ere elektrikaren sektorean dabilen Engie frantziar enpresak eta euskal jatorriko Siemens-Gamesak hornitu izan dituzte konpainia marokorak haize errotekin Mendebaldeko Saharako.

"Maroko ekonomikoki gero eta konektatuagoa dago Mendebaldeko Saharari, eta ilegalki okupaturik duen lurraldearekiko menpekoago da orain –dio WSRSk–. Lurralde horretan sorturiko energia Marokora esportatzeko asmoa du, eta soberakinak inguruko herrialdeetara, Europar Batasunera barne".

Emboirik Ahmed Omar diplomatiko sahararrak *Breve historia del Frente Polisario* ("Fronte Polisarioaren Historia Laburra", Catarata, 2023) liburu berrian dio 1975ean Espainiak sahararrak "traizionatu" eta bere babesean zegoen lurraldetik hanka egiteko arrazoietako bat izan zela "espainiar enpresek etekinak izaten jarraituko zituztela hala ere". Europar Batasunak, Ekialde Hurbilean zein Saharan, belea beti bele, eta okupatzailea espionatzaile. ●



ZINKUNEGI  
OPTIKA

Hernani 23 · 20004 Donostia

T. 943 420 624

[zinkunegioptika.com](http://zinkunegioptika.com)



# Christine Lamberty

SISTEMA ERAITSI



## ORAIN MUNDU GUZTIAK IZAN NAHI DU FEMINISTA, BAINA EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIAK EZ DU ETENIK



Pasa den urrian Euskal Herriko hainbat lekutan ibili zen Christine Lamberty aktibista, Baskale elkarteak gonbidatuta, *Frauen Bildet Banden* (Emakumeak, osatu taldeak) dokumentala aurkezten. Filmean Rote Zora hiri-gerrillaren gainekoak kontatzen dira, baina baita 1970eko hamarkadan pil-pilean egondako borroken historia ere. Garai hartako aldartea hala deskribatu du Lambertyk: “Irudipena genuen sistema errotik alda zitekeela”.

 DANELE SARRIUGARTE MOCHALES  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### Hasteko, zure burua aurkezteko eskatu nahi nizuke.

Christine naiz, eta... Zaila da azaltzen nongoa naizen. Orain Berlin inguruan bizi naiz, elkarbizitza-proiektu batean. Eta luzaroan aritu naiz LasOtras izeneko zinema-kolektiboan parte hartzen. Horren harira, esan behar dut ez gabela lehen lerroko zinegileak; aktibistak gara. Ni aktibista feminista izan naiz 1970eko hamarkadaren hasieratik. Neurri handi batean, mugimendua sustatzeko egiten dituguz filmak.

### Bai, hain justu ere LasOtras taldeari buruz galdetu nahi nizun hurrena.

### Nola sortu zen? Zer film egin dituzue orain arte? Zer helbururekin?

1996. urtearen bueltan sortu genuen taldea. Garai hartan *sans papiers* delakoen borroka piztu zen Frantzia. Mugimenduen bozeramaileak Alemanian ikasi zuela bagenekien, eta beraz alemanez moldatzen zela. Ezin zen Alemaniara etorri, paperik ez zuelako, baina garrantzitsua iruditzen zitzaigun mugimendu horri buruzkoak gurera ekartzea. Talde bat sortu eta harengana joan ginen, eta gure lehenengo filma egin genuen. *Wir sind schon da* (Hemen gaude jada) deitzen da, eta gure webgunean ikusi eta deskargatu daiteke. Eta gero jarraitu genuen

manifestazioetara eta ekintzetara joaten, grabatzera. Baina, bestalde, gauzak eskatu izan dizkigute beti: “Film bat egin dezakezue honetaz edo beste hartaz?”. Eta guk, egin.

### Rote Zora taldeari buruzko dokumentala aurkeztera etorri zara Euskal Herrira. Film hori egiteko ideia nolatan sortu zen?

Esan dudan bezala, luzaroan aritu nintzen modu aktiboan EmakumeLesbianen mugimenduan Alemaniako Errepublikaren Federallean, eta niretzat garrantzitsua zen jakintza hori transmititzen segitzea mugimendua apaldu eta gero ere. Mugi-



# Christine Lamberty

RENANIA-PALATINATUA, 1946



1970eko hamarraldian ekin zion aktibismo feministari –EmakumeLesbianen mugimendua deitzen zioten orduan– eta horretan dihardu oraindik. Beste hainbat borrokatan ere ibilitakoa da: antimilitarismoa, kontrol digitalaren aurkako borroka... Besteak beste, LasOtras zinema-kolektiboko kidea da, eta hainbat mugimendu sozialei buruzko filmak egin dituzte. Eskuragai daude, sarean, taldearen webgunean: [www.lasotras.de](http://www.lasotras.de)

mendu horren gaineko lehen hitzaldietan proiektuak aipatzen ziren batez ere, baina ez zen hitz egiten EmakumeLesbianen mugimendu erradikalari buruz, garai hartan existitu zen mugimenduari buruz alegia, nahiz eta geroko proiektu guztien abiapuntua izan zen. Azkenean, Rote Zora taldearen inguruko filma egiteko aukera ateratu zen, baina ez da talde horri buruzkoa bakarrik; mugimendu zabalagoarekin izandako harremana ere lantzen da.

## Zer harreman zegoen Rote Zoraren eta EmakumeLesbianen mugimenduaren artean?

Nire esperientzian behintzat, harreman oso estua zegoen politikoki. Gai garrantzitsuak izan ziren, bai batzuentzat bai besteentzat, abortua, emakumeen aurkako indarkeria, gerra, genetika- eta erreproduktzio-teknikak... Batzuek manifestazioak antolatu zituzten halakoen hari- ra, eta besteek, berriz, erasoak gauzatu eta testuak idatzi.

Guretzat oso garrantzitsuak ziren Rote Zoraren testuak, ikerketa sakonen emaitza zirelako eta posizio politiko argiak adierazten zituztelako. Testuak irakurri eta eztabaidatzen genituen. Eta horrek indarra ematen zigun.

## Zein ziren EmakumeLesbianen mugimenduaren aldarrikapenak garai hartan?

Ez genuen aldarrikapenik egiten, hau da, ez genion eskaerarik egiten estatuari. Ez ginen horretaz fio, gure eskubideen alde borrokatzen ginen, ordea: abortatzeko aukera izateko, gure gorputzaren gaineko eskubideengatik, geure buruaren jabe izateko, eta, halaber, emakumeen aurkako indarkeria- ren kontra, eta horrekin lotuta kolonialismoaren aurkako borrokarekiko elkartasunean, internazionalismoaren alde, beste herrialde batzuetako emakumeen lan-baldintzak hobetez, etab. Baina ez genuen ezer exijitzen, egin egiten genuen, gure eskubideen alde borrokatzen ginen.

**Filmera etorrita, garaiko protagonista batzuen testigantzak bildu dituzue. Rote Zorako kideen ahotza entzuten dugu, baina haien**

## aurpegirik ez dugu ikusten.

Hasiera batean, Rote Zorako kideak elkarrizketatu nahi genituen. Galderak prestatu genituen, eta bidali egin genizkien, esanez film bat egin nahi genuela haiekin. Erantzun luze bat bidali ziguten, gustura erantzungo zietela gure galderei, baina ez zutela nahi bideoan agertu, eta ez zutela nahi, ezta ere, guk haiek ikusterik.

## Zergatik ez?

Batetik, esan ziguten beraien borroka kolektiboa izan zela beti, gaur egun ezin zutela denek batera hitz egin, eta ez zuten nahi borroka indibidualizatzea, hau da, bakar batek hitz egitea taldearen izenean. Bestetik, taldeko kideak ez dira ezagunak, ez dakigu nor diren, eta gaur egun esango balute, beldur ziren horrek ondorio- rik ekarriko lukeen beraien- tzat edo beste inorentzat. Adibidez, agian poliziak erabil lezake zer-nola- ko sareak edo kontak- tua zituzten berreraiki- tzeko. Eta beste batek esaten zuen ez zuela nahi agertzerik, zeren beharbada militantziara itzuli nahi izango zuen uneren batean.

“  
**Alemanian,  
mugimendu feminista  
oso zatituta dagoela  
iruditzen zait... Indar  
bateratua falta da,  
zoritxarrez”**

## Nola sortu zen Rote Zora? Zer helbururekin?

Lehen eraso Medikuen Ganbera Federalaren aurka egin zuten, instituzio horrek abortuaren legeko 218. paragrafoa mantendu nahi baitzuen kosta ahala kosta. Eta paragrafo hori aldatzeko borroka izan zen emakumeen eta lesbianen mugimenduaren abiapuntuetako bat. 1977an izan zen. Urte horretan *Walpurgis* gaua antolatu zen lehenengo bider, lelo honen pean: *Emakumeek gaua berreskuratzen dute*. Guk ikasia genuen, kalera ateratzen baldin baginen iluntzeko zortzien ostean eta gizonen laguntzarik gabe, geure errua zela borrokatzen bagintuzten. Okurritu zitzaigun debeku horri aurre egitea eta elkarrekin ateratzea kale- ra. Eta Rote Zorak eraso egin zion Medikuen Ganberari gau hartan, batetik manifestazioan beren ekarpena egiteko eta, bestetik, Abortuaren Legearen harira ere beren iritzia adierazteko.

**Gerora beste bi kanpaina nabarmen egin zituzten, bata genetikaren**



### arloko ikerketaren arloan.

Bai. Geneen teknologiaren arloak argi uzten du nolako obsesio patriarkala existitzen den bideragarritasunaren harira, hau da, botere patriarkalak nola nahi duen denaz jabetu, desmuntatu, erabili, eta berriro muntatu, betiere bere premien arabera. Hori oso agerikoa da ingeniarietza genetikoan. Eta Rote Zora, funtsean politika patriarkal horren kontra zegoen.

### Alemaniarren historiarekin ere zerikusi zuzena du, ezta?

Jakina. Giza genetikaren ikerketa hori lotuta dago eugenesiarekin ere, nork bizi behar duen, nork ez, nork duen lekua hemen eta nork ez. Rote Zora Münsterreko zentro batean sartu zen [Giza Genetikako Aholkularitza Zentroa], eta artxibo batzuk topatu zituzten, nazien garaiko dokumentazioa. Argi geratu zen, beraz, baze-goela lotura bat garai horrekiko, pentsamenduan behintzat, nahiz eta gero ideologikoki baztertu. Mugimendu handia egon zen gai horren inguruan. Eta Rote Zorako kideek filmean ondorioztatzen dutenez, Alemanian, beste herrialde batzuekin alderatuta, motelago garatu da ingeniarietza genetikoaren ildo, horren aurka egindako eraso eta kritika etengabeen eraginez. Ni ere ados nago horrekin.

### Rote Zoraren beste kanpaina aipagarri bat, Adler enpresaren aurkakoa.

Adler ehungintza-enpresa aleman bat da. Hego Korean zeuzkan lantegiak, eta sekulako liskarrak izan ziren han, langileek protestak egin zituzten eta sekulako errepresioa jasan zuten, oso bortitza. Hango emakumeek laguntza eskatu zioten Alemaniari, eta hainbat kanpaina egin ziren, elizatik besteak beste. Ondoren, Rote Zorak zenbait eraso egin zituen, eta azkenean enpresaren nagusiak onartu zuten Koreako langile emakumezkoen baldintzak betetzea. Sekulako garaipena izan zen, nazioartekoa gainera.

### Garaia ere halakoa zen, ezta? Rote Zora bezala, ekintza-talde gehiago zeuden Alemanian bertan eta handik kanpo.

Oso garai politizatua zen, oro har, eta borroka handiak zeuden kalean. Bagenuen itxaropena, sistema eraitsi ahal genuela.



Denek hitz egiten zuten iraultzari buruz, ziur aski jakin gabe zer zen iraultza zehazki, baina bagenuen irudipena sistema errotik alda zitekeela; uste dut puntu garrantzitsua zela hori. Eta talde misto indartsuak zeuden, besteak beste talde armatuak: RAF, Ekainaren 2ko taldea... Bai eta Zelula Iraultzaileak ere, RZ alemanez. Rote Zora ere horren parte zen. Sentimenduak pil-pilean zeuden kalean, eta giro hori asko nagusitu zen garai hartan.

### Gero, ordea, aldatu egin zen.

Erabat. Hainbat arrazoi tarteko. Batetik, errepresio itzela gauzatu zelako mugimenduen kontra; bestetik, sistemak badu gaitasuna erresistentzia bere barruan integratzeko, eta, azkenik, neoliberalismoa iritsi zen, guztiz bestelako baldintza batzuk ezarri ziren eta horrek ekarri zuen, garaian, mugimendu askok porrot egitea, nazioartean ere bai. Eta uste dut sistema errotik aldatzeko itxaropen hori desagertu egin zela.



## ROTE ZORAREN HISTORIA LABURRA

Rote Zora Alemaniako Errepublikan osatutako emakume feminista autonomoen hiri-gerrilla bat izan zen. Denera, berrogeita bost eraso egin zituzten segurtasun-indarren azpiegituren, enpresen, epaitegien eta lantegien kontra. Lehergailuak jartzen zituzten patriarkatuaren, inperialismoaren eta militarismoaren aurka, eta inoiz ez zuten inor zauritu. 1970eko hamarkadako Revolutionäre Zellen (Zelula Iraultzaileak) erakunde marxista autonomo armatuaren barruan sortu zen. 1986tik aurrera, bakarka jarraitu zuen bidea. Gehiago jakiteko: *Rote Zora. Hiri-gerrilla feminista piztiaren bihotzean, 1974-1995* (Katakarak, 2023; itzultzailea: David Lindemann).

### Rote Zorari buruzko filma egitearen xedeetako bat izan liteke garai hartako borroketatik ikastea, gaur egun ekarpenak egin ahal dizkigulakoan?

Hala uste dut, bai. Kontua ez da esatea, "begira zer gauza itzelak egiten ziren iraganean", baizik eta ordukotik ikastea. Beti esaten dugu historia erreferentzia garrantzitsua dela akatsetatik ikasteko, baina beharbada indarra hartzeko ere balio dezake. Eta aurkezpen askotan iruditu zait jendea bila dabilela gaur egun, zer egin dezakeen bilatu nahian. Garbi dago ezin dugula horrela segitu, zerbait aldatu behar da, errotik. Eta horri buruzko jakintza badugu. Garai batean borroka batzuk izan ziren, eta mugimenduen arrakastan lagundu zuten, eta baliteke horrek indarra ematea berriro.

### Nolako harrera izan du filmak Alemanian eta nazioartean?

Izugarri ona; harrিতa gaude. Denek esan digute indarra eta adorea ematen dizkielela. Guk ez genuen pentsatzen hainbeste hizkuntzatar itzuliko zenik, hori ez dugu guk bultzatu, kanpotik proposatu digute, kasu honetan bezala. Bestalde, uste dut garrantzitsua dela Rote Zoraren testuak ere itzuli izana beste herrialde batzuetan. Interesa dago taldearekiko, baina

ez soilik taldearekiko, ezpada haien ideiekiko. Nola zeharkatu mugak? Nola borrokatu, eskura duzun guztiarekin, zure eskubideen alde eta pertsonen bizitzaren alde?

**Euskal Herrian hainbat aurkezpen egin dituzue. Zer moduz joan dira?**

Oso interesgarria izan da. Otxandion, adibidez, bi emakume gazte etorri ziren, eta hainbat gauza galdetu zizkiguten, besteak beste ea zer-nolako babesa zeukan Rote Zorak gizar-tearen partetik, hau da, ea lehenengo ekintza egin eta horren ostean jaso zuten babesa, ala ea babesa eta ekintzak batera joan ziren. Uste dut galdera horren atzean bazegoela halako pentsamendu bat: «Beharbada orain ez dago halako ekintzen aldeko ageriko onarpenik, baina egingo bagenu, agian jendeak babestu egingo gintuzke?».

**Zein da mugimendu feministaren egoera Alemanian gaur egun?**

Galdera ona. Feminismoa boladan dago. Beste herrialde batzuetako emakumeak esplotatuz negozioa egiten duten enpre-



sek ere ateratzen dituzte arropak non aldarrikatzen den emakumeen boterea, feminismoa, etab. Alemaniako Kanpo Arazoetako ministroa feminista da, eta mundu guztiak izan nahi du feminista. Baina hala eta guztiz ere, emakumeen aurkako indarkeriak eta feminizidioek ez dute etenik. Mugimendu feminista oso zatituta dagoela iruditzen zait. Emakume aktibista asko dabilta mugimendu ekologistan, antifaxistan, antiarrazistan, zaintza-lanen harira... Baina indar bateratua falta da, zoritxarrez.

**1970eko hamarkadako aldarteaz esan duzunari berriro helduta, gaur egun ez dugu uste sistema eraits dezakegunik?**

Edo guk eraisten dugu edo hark eraitsiko gaitu. Ezin dugu ahaztu zer neurritan kaltetu den ingurumena, begien bistakoa da. Ez du horrela segituko egun bat gehiago, edo orain gertatzen ari dena digitalizazioarekin eta bizitzarako sarbide berri honekin. Biziduna den guztia xurgatu nahi dute berriro. Transhumanismo honekin,

edo giza makinaren sistema honekin, ezin dugu mugitu, mugimendu horren arrastorik utzi gabe. Iruditzen zait oso kontzientzia gutxi daukagula zer punturaino kontrola dezaketen gure erresistentzia. Gauzak etengabe aldatzen dira zentzu horretan. Garai batean, kontaktuan egoten ginen nazioarteko mailan, Internetik ez telefonorik gabe, baina hala ere bildu egiten ginen eta gauzak eztabaidatzen genituen elkarrekin. Hori ahaztu egin da. Nola biziberritu dezakegu? Premiazkoa da. ●

*BI EGUAZTENEAN BEHIN, 18:00N ZUZENEKO SAIOA, BILBO HIRIA IRRATIAN*

# LANAREN EKONOMIA

## 7. DENBORALDIA

BI-96.0-FM  
Bilbo Hiria Irratia  
www.bilbohiria.eus

EL SALTO  
RADIO

ARGIA

HORDAGO



## Lehia eta markoa

**A**raba, Bizkai eta Gipuzkoako panorama politikoan, hurrengo urtean egingo diren legebiltzarrerako hauteskunde itzala geroz eta gehiago nabari da. Bozketa horietan, azken garaian ez bezala, lehia aurreikus daiteke; edo, hobe esanda, EAJk aurkari indartsu bat izango du parean, EH Bildu, hain zuzen.

Koalizio independentistak 2012an, orain dela hamaika urte jada, jeltzaleei planteatu nahi izan zien aurrez aurreko elektorala. Testuingurua eta alderdi bakoitzak zekarren joera oso desberdinak izan ziren orduan (Bildu zetorren Gipuzkoan aldundia irabaztetik eta Espainiako hauteskundeetan Amaiurrekin sabaia ukiztetik), baina EAJk aise irabazi zituen hauteskunde autonomiko haiek. Oro har, handik aurrera, Podemosen sarrera tarteko, jeltzaleek nagusitasuna mantendu dute botere instituzionalari dagokionean, Gasteizko Legebiltzarrean nahiz EAEko beste erakunde askotan, Alderdi Sozialistarekin batera kasurik gehienetan.

Baina maiatzean egin ziren Espainiako hauteskunde emaitzen ostean, EAEko egoera politikoari buruzko pertzepzioetan aldaketa zantzuak soma daitezke, nire ustez; eta nagusiki EAJri buruzko ikuspegiei dagokienean. Jeltzaleak, aspaldiko partez, ez ziren garai le moduan agertu gizartearen aurrean. Hurrengo bozketa autonomikoetan bi alderdi nagusien arteko lehia garrantzitsua izango da, EAE alderdi biko sis-

**Dagoeneko ohitu  
garen arren, benetan  
berritasuna da  
Hego Euskal Herriko  
politikaren ikuspegitik  
EAJ eta EH Bildu  
Madrilgo eszenatokian  
haien artean lehiatzea**

temarantz, ñabardura askorekin oraindik, are gehiago gerturatuko litzateke. Aurrez aurreko horretan PSEk izan dezakeen pisua eta papera ere kontuan hartzekoa izango da, Madrilgo haizeen arabera aldatuko dena.

EAJren eta EH Bilduren arteko balizko lehia horretan gizarte gaiak nabarmenduko direla dirudi: batetik, arlo horiei buruzko ezinegona (Osakidetza-aren nahiz langile publikoen egoera, adibidez) adierazgarria delako, inkestek edota mobilizazioek erakusten duten bezala; eta bestetik, alderdi bakoitzak zein sektoretara zabaldu nahi duen kontuan hartzen badugu (alderdien arteko disputa nagusia ez dirudi boto abertzalea erakartzeko izango denik). Hortaz, nazio auzia, norgehiagoka horretan, ez



**IKER IRAOLA ARRETXE**  
EHU-KO SOZIOLOGIAKO  
IRAKASLEA

da lehentasuna izango, ziurrenik, ez bada gai zehatzei lotuta (Hezkuntza Legea, kasu).

Paradoxikoki, jeltzaleen eta koalizio subiranistaren arteko lehia gertatzen ari da Espainiako politikak Hego Euskal Herrian geroz eta zentraltasun handiago eskuratzearekin batera. Hedabideen agendan, baina baita, neurri batean, alderdi abertzaleen beraien jardunean ere, Madrilgo politikak leku handia betetzen du. Zentzu horretan, dagoeneko ohitu garen arren, benetan berritasuna da Hego Euskal Herriko politikaren ikuspegitik EAJ eta EH Bildu Madrilgo eszenatokian haien artean lehiatzea.

Gurea bezalako estatu propiorik gabeko herri batean, bertako eztabaida nagusitza, bertako markoa finkatu eta erreproduzitzea, funtsezkoa da. Madrilgo politikaren egoerak hartuko duen norabidearen arabera, eta Gasteizko Legebiltzarreko hauteskundeak gerturatzu joan ahala, ziurrenik fokua Euskal Herrirantz gerturatzen joango da, men-debaldeko hiru herrialdeetan gutxienez. Bide horretan, alderdiei loturiko jardun politikoarekin batera, instituzioez haragoko politikaren jarduna ere azpimarratu behar dela uste dut, eztabaidak eta borrokak Euskal Herri mailan, euskal nazio markoa elikatuz, garatu daitezzen egiten duten ekarpena funtsezkoa baita. Mugimendu sozialen indarra bide honean berebizikoa izango da, eta arestian hizpide izan dugun lehia nola eragingo duten ikusteke dago. ●

# Ondoan hezitzaile bat nahi?



ANE ABLANEDO LARRION  
IRAKASLEA



DOM CAMPISTRON

**E**z, ezta? Izan ere, irudikatzen duzue zer izan behar den beti norbait ondoan edukitzea, egin ahal duzunaren –eta ez dezakezunaren– esparrua mugatuz, gauzak nola egin behar dituzun –eta nola ez– esanez, dena beti hobeki egin dezazun tematuz, egin beharrekoak etengabe adieraziz, denbora gal ez dezazun saiatzun, nola jokatu behar den –eta nola ez– seinalatuz, zure lana beti epaituz –goraipamenez edo gaitzespenez–, edota zure bizitza goitik behera antolatuz? Denok ezagutzen dugu sentsazio hori, eta ongi dakigu ez dugula horrelakorik nahi izaten, itogarria zaigula, ez dela atsegina.

Agian zure hobe beharrez ariko da, ez dugu zalantza egiten. Eta zaila bada ere, jakin ere egingo du, beharbada, zer behar duzun, zuretzat onena zer den, edo nola iritsi zintezkeen zeure bertsiorik onena lortzera; baina hori horrela izateak edo horrela dela jakiteak ez du sentsazioa arintzen. Arazoa ez dagoelako bere asmoen borondatean, edo bere proposamenen zentzutasunean, baizik eta geurea baino behar ez lukeen askatasun eta erabakimenaren eremu sakratura sartu izanaren keinuan.

Nondik jo(an), zer (ez) egin, nola jokatu, edo nola bizi behar duzun etengabe esaka ari zaizun norbaiten asmoa beti

da zu bideratzea, eta asmo horretan beti sumatu daiteke zaren horren gutxiespena: hainbeste aldatu nahi badute, zaren bezalakoa onargarri (eta maitagarri) ez dela sentitzen baitu egoera horretan egon den edozeinek. Eta horrek mina sortzen du, noski.

Ondoan hezitzaile bat edukita bizitzea kosta egiten dela begi-bistakoa baldin bada, nolatan onartu eta instituzionalizatu dugu figura hori haur eta gaztetxoentzat? Zergatik onartzen dugu beraientzat geuretzat nahi ez dugun hori? Zer dute bada ezberdin, haurrek, hori nahi edo behar izateko? Zergatik naturalizatu dugu haurrek bizitzeko eta ikasteko hezitzaileak behar dituztelako ideia? Zer sentituko zenukete zuek, figura hori zuengan propio pentsatuz sortua izan dela jakingo bazenute? Ez ote zenukete sentituko asko dagoela zuen izateko-egiteko-jokatzeko moduan aldatu beharrekoa, hainbeste, non hezitzaile bat jarri behar izan baitzueten?

Garapenaren garaia izatea, gauza gehien ikasten diren aroa izatea, edo ia gauza guztien lehen aldia izatea ez da harremanaren nolakotasuna aldatu behar izateko arrazoi. Txikiak dira, eta asko eta asko dute garatzeko, ikasteko eta bizitzeko, baina, beren txikian, modu berean

nahi dute inguruarekin eta ingurukoekin erlazionatu. Onartuak sentituta, beren askatasun funtsezkoaren jabe direla, beren erabaki on eta txarren ondorioen arabera ikasiz, adinean gora egin ahala gero eta handiagoa den arduraz.

Haiek ere inguratu nahi dute hezi nahi ez dituztela frogatu duten baina bidean laguntzen dietela dakiten horiez, haurrek ere geuk bezala, hezitzaileak baino bidelagunak baitituzte nahiago. Zeintzuekin interakzioa edukiko duten, harreman eta atxikimenduak sortuko dituzten, eta harremanaren efektu hutsez, modu berriak ikasi, errealitate berriak ezagutu, bizi, hazi, eta garatuko dituzten, modu naturalean.

Txikiak dira, eta geure behar handiagoa dute. Baina horretan baizik ez luke haurren adinak beraiekiko harremana baldintzatu behar: autonomia-maila txikiagoa edukita, gehiago behar dutela gure presentzia, gure laguntza. Jar dezagun zaintza heziketa esaten genuen tokian, baina horraino, kito.

Eta gainerakoan, erraza da: ez gaitzen haurrekin erlazionatu guretzat onargarri irudituko ez litzaigukeen moduan. Eta ez galdetu pertsonei adina, bidelagun edo hezitzaile izan behar gaitzaizkion jakiteko. ●



**BEÑAT MUGURUZA**  
**ASEGINOLAZA**  
 IRAKASLEA ETA  
 IKERTZAILEA

## Bat, txikia eta librea

**C**arme Junyent hizkuntzalari katalana hil zen pasa den irailean. Hizkuntza-politikari buruz esaten zituenak arretaz segitu ditugu hemen, haren proposamen batzuk noizbait gurean aplikatzera ausartuko ginelako itxaropenez-edo, beharbada. Aho-bizarrik gabe jarduten zuen. Aldizkari honetan adibide mordoa jaso da: hiru aldiz elkarrizketatu du ARGIAk azken hamar urteotan. Azkenekorako, 2020an, LARRUN monografiakoa eskaini zioten, oso-osorik.


Ez da bidezkoa haren obra oparora liburu bakarrera ekartzea, baina 2021ean Junyentek apailatutako lan bati buruz hitz egin nahi dut hemen: *Som dones, som lingüistes, som moltes i diem prou*. Elkartu zituen 70 hizkuntzalari katalan-hiztun, emakumezkoak, eta hizkera inklusiboarekiko jarrera kritikoa azaltzen zutenak. Katalana gainetik baino ez dut ezagutzen: gaztetan ikastaro bat fakultatean, *procésari* esker egindako intentsiboa, ondoren... Ez dakit hizkera inklusiboarekin zer mugimendu dagoen hitzun-komunitate horretan, eta kosta egiten zait hain itogarria dela irudikatzea, 70 emakumezko hizkuntzalari katalan-hiztun horri buruz idazten jartzeraino. Eta ez edonola: *prou* diote, aski.

Harriduraz bizi dut, kostatzen zaidalako irudikatzea emakumezko 70 autore

euskaldun hizkera inklusiboa ezbaian jarriz. Baina inbidia puntu batez ere bizi dut, zer nahi duzue esatea, liburuiko sarrera irakurri hutsarekin, Junyentek berak idatzia. Nik neuk ez dut gaia horrela bizi, baina nahi nituzke ikuspuntu horiek ere euskaraz irakurri, euskaldunek idatzita. Tamaina kontua ere izango da, beste gauza asko bezala. Gu milioi bat eskas gara, haiek hamar bat milioi. Baina hainbeste axola al du tamainak?

Susmoa dut euskaltzale askok ez luketela halako ikuspeirik aditu nahiko euskaraz. Izan ere, euskara omen da gure territorio libre bakarra. Bat, txikia eta librea. Bestela esanda, fatxarik ez duen hizketa garbia. “Fatxa” hori izugarri modu zabalean ulertuta, noski. Tamalez, edo ez, euskararen hedapenerako muga izan litekeen horixe, agian, euskarak bizirauteko indargune ere bada, gotortzeko bide. Gutxi batzuentzat asoziazio horrek egin dezake euskara erakargarri, batzuek balio jakin batzuekin lotzen duten neurrian, nahiz beste askorentzat kode hori desererosoa edo arrotza izango den.

ARGIAk liburu koral horri buruz elkarrizketatu ahal izan aurretik utzi gaitu Junyentek, eta konformatu beharko dugu orain artekoekin, eta baita han-hemen utzi dizkigun gainerako argitalpen guztiekin ere. Ez da gutxi. ●



**EVA PEREZ-PONS**  
**ANDRADE**

## Erresistentzia

**H**erri mugimenduen barna eta ekintza politikoa, gure hiztegiaren parte egin dugu *erresistentzia* kontzeptua. Erresistentzia egiten diogu patriarkatuari, kapitalismoari, kolonialismoari, inperialismoari eta abar luze bati. Hitzean sakonduz gero, pertsona, talde edo mugimendu bakoitzak bere definizio propioa duela ikus daiteke.

Oro har, esango nuke erresistentzia asko lotzen dela eustearekin edo aguantatzearekin. Erresistentzia pasiboaren eta aktiboaren arteko bereizketa egin izan dugu noizbait, lehenengoari bigarrenari baino kategoria “bakezaleagoa” ezarri nahian. Formak alde batera utzi-

ta, *erresistentzia* eta *pasibotasuna* antonimoak direla esatera ausartuko nintzateke; erresistentzia baldin badago, kontra egite bat dago, eta hori ekintza bat da, taldean aurrera eramanez gero, ondo koordinatu beharrekoa. Horrez gain, erresistentziak inplizituki dakar eraikuntza. Sistema hegemoniko bati aurre egin diogulako, hau da, horren kontra zerbait eraiki dugulako, dator normalean hegemoniatik biolentzia den erantzun bat, hegemoniak bere normaltasunaren baitan eragiten duen biolentzia sistematikotik bereizten dena zigor forman. Biolentzia horri eusten diogu akaso. ●

# Etorkin eta eskale



**JOSE IGNAZIO ANSORENA**  
TXISTULARIA

**H**irietako edozein tokitan egoten dira. Tente, etzanda, jarrita... on-tzitzoa aldamenean edo eskua luzatzen. Musika egiten, jendeari zerbait esaten edo isilik. Emakumezkoak, gizonzkoak, gazteak, zaharrak, kolore eta hizkuntza denetarikoak... Garai batean elizen atarrietan bezala, egun merkatuen sarrera-irteeretan... Eskaleak dira. Gehienak, etorkinak.

Garai bateko nekazarien eta herri txiki-tako ohituretan bazekiten nola jokatu eskaleekin. Maiz ezagunak zituzten urtean hainbat aldiz etxeko atarira hurreratzen zirelako. Lantxo bat agintzen zieten, egurrak moztea edo, eta trukean mandioko txoko batean lo egiten uzten zieten eta egun horietako mantenua ematen.

Egun, askok nahi dute erakundeek artatzea. Batzuk nahiago haiekin aritzen diren elkarteei dirulaguntzak ematea. Beste batzuk diote borroka soziala behar dela eskalerik izan ez dadin. Ongi dago. Baina eskaleei begiradaxoa eskaintzea eta tarteka txanpontxo bat ematea ere ez da kalte.

Gure aitona Isidro kontatzen ohi zuen bere ume garaian Hernanitik Goi-

Batzuk diote borroka  
soziala behar dela  
eskalerik izan ez dadin.

Ongi dago. Baina  
eskaleei begiradaxoa  
eskaintzea eta tarteka  
txanpontxo bat ematea  
ere ez da kalte

zuetarainoko bazterretan *Belarrimotxa* esaten zioten eskalea ibiltzen zela. Txilibitu txiki bat jotzen abila, baserrietan eta Hernaniko kaleetan denak dantzan eta giro pozgarrian jartzen zituen. Jotzen zuen doinu polit bat Isidro jaso eta harmonizatu egin zuen: *Belarrimotxarena* jarri zion izenburu.

Behin zital batek txilibitua ostu zion eta *Belarrimotxaren* tristura txoko guztietara zabaldu zen. Parrokiako apaiz organistak merkatuan beste bat erosi zion

arren, ez zuen lehengo hots ederra lortu. Handik gutxira Hernanitik desagertu eta hilabete batzuk geroago kamino bazter batean hilda azaldu zen.

Igandeko mezaren lehen irakurgaia *Irteera* liburutik (20, 20-26) hartuta zegoen. *Honela mintzo da Jauna: Ez gaizki erabili, ez zanpatu etorkina, zuek ere etorkin izan baitzarete Egipton*. Denok izan gara etorkin eta izango. Bizitzako alderdi guztietan. Juduak mendeetan ibili ziren etorkin eta orain latinoak, ukrainarrak, ekialdekoak, marokoarrak edo senegaldarrak gehiago.

Antonina Kuhot Ukrainatik etorri zen bizimodu hobearren bila. Gure etxean gertatu zen, zahar guztiak zaintzen primerako laguntzailea: izebak, ama eta aita. Etxeko bihurtua, azkenean herrira itzuli zen, dirutxo batzuk eginda, erretiroa lasai bizitzeko asmoz. Larunbatetan deitzen diot telefonoz eta kontatzen dit gauero bere herri txikiaren gainetik droneak eta misilak nola pasatzen diren. Astero berdin amaitzen du elkarrizketa: *Berriro deitu hurrengo astean, ea oraindik hemen naizen*.

Nago laster droneak eta misilak gure gainetik pasako ote diren. ●

**2. FINALAURREKOA**  
**AZAROAK 18**

Aitor Bizkarra Ruiz, Bittor Altube Sarrionandia, Jone Uria Albizuri,  
Mikel Goirienea Larrazabal, Txaber Altube Sarrionandia eta Unai Mendiburu Valor.  
Gai-jartzailea: Igor Menika Bengoetxea.

**SANTURTZI**

SERANTES  
KULTUR  
ARETOA.  
17:00

BIZKAIKO  
BERTSOLARI  
TXAPELKETA  
2023



[www.bertsozale.eus](http://www.bertsozale.eus)  
[www.bertsosarrerak.eus](http://www.bertsosarrerak.eus)









# Espazioa eta unea berreskuratzea

 MATI ITURRALDE, JULEN LARRINAGA, IKER MENDIBE ETA JOSEBA ALVAREZ

**P**alestinako genozidioak berriro astindu du bizi garen mundua. Sistema kapitalistak aberastasuna metatzeko proiektuan "baztergarritzat" jotzen dituen herri menderatuen eta desjabetuen errealitate gordina erakusten digu. Alabaina, errealitate gogor horrek herri baten biziraupenaren aurrean ere jartzen gaitu; izan ere, nazioarteko botereek babestutako estatu batek hainbat hamarkadatan eragin dituen jarpenaren eta zigorraren ondoren, herri horrek borrokarako bokazioari eta duintasun kolektiboari eusten jakin du.

Herriek -dio psikologia sozialak- mehatxuen aurka borrokatzea erabakitzen dute, kide bakoitzaren identitatea besteenetik banaezina dela sentitzen dutenean. Identitatearen batasun hori indibidualismoaren eta gainerakoaren sufrimenduaren aurreko axolagabekeriaren alderantzizko bidea da, eta badirudi gaur egun Mendebaldeko gizarteetan gehien errotuta dagoen balioa dela.

Iraganari begiratu gero, Euskal Herriak mendetan jakin du nortasun propioa duen komunitate gisa bere burua berresten. Bere funtsezko identitate-elementuetako batek, euskarak, bizirik iraun du, hori transmititzea eta bere izatearen zati gisa defendatzea erabaki zuten gizon-emakumeen belaunaldien erabakitasunari esker.

Baina ez da euskara bakarrik izan herri gisa batu gaituena. Hainbat hamarkadatan, modu kolektiboan erantzun diegu errepresio-egoerei, lan-eskubideen aurkako erasoei edo jendarte-premiei, bigabekeriari eta inposaketari. Ez gara herri etxekotua izan, ezta pasiboa ere, eta segur aski sentipen horrek eraiki du gure nortasuna.

Baina, era berean, onartu behar da egungo egoera, gutxienez, kezagarria dela. Jendarte-mugimenduek, milaka herritarren ekintza- eta aktibismo-sare historikoak izan direnek, behe orduak bizi dituzte. Hala ere, ukaezina da, indar gehiago edo gutxiagorekin, badutela oraindik sistema kapitalistaren erasoen

aurka mobilizatu eta erantzunak artikulatzeko gaitasunik mugimendu feministak, langile eta gazte mugimenduak, pentsionistenak, mugimendu ekologistak, euskalgintzak...; kontsumismoak eta asimilazio kulturalak joera gisa geldiezinak diruditen bitartean.

Gezurra badirudi ere, erakundeetan sistemaren "akatsak" zuzentzeko arduradun bakarrak politikariak diren ideia sendotuz joan da gure artean. Alderdi politikoek uko egin diote oinarri militanteak antolatzeari, eztabaidatzeari eta protagonismoa emateari. Eta sare sozialek eta komunikabideek kontrastea, erabaki kolektiboak eta espazio publikoak ordezkatu dituzte. Gure kaleek eta plazek protagonismoa galdu dute, eta gutxienezko jarduera hauteskunde-kanpainetan baino ez dute erakusten, non "*spindoctor*" itxurako hizlariak beren diskurtso prefabrikatuak aldarrikatzen dituzten dagoeneko konbentzitura dagoen publikoaren aurrean. Jarduera horren helburu bakarra boto-emaileen kuota handitzea da, lorpen horrek berez independentziara, feminismora eta sozialismora gehiago hurbilduko bagintu bezala. Ildo horretan, politika bideo-politika bihurtu da, eta herritarren parte-hartzea eszenifikaziotik gertuago dago borroka sozialetik baino. Ez gara benetako botere-alternatiba bat eraikitzen ari, boterean txandakatze hutsa izatearekin konformatzen gara.

Herri-mugimenduak historikoki bete izan duen paper galdu du, ez protagonista ez bigarren mailakoa. Ezta hurrik eman ere, zeregin propioa eta auto-zentratua. Hala ere, gure jendarteak inoiz baino gehiago behar ditu errealitatean txertatutako haren proposamenak, subjektu sozial protagonistak behar ditu autodefentsa posible dela frogatzeko, botereekin elkarrizketa soziala behar du, argi uzteko nortasun propioa eta borrokarako gaitasuna dituen herria izaten jarraitzen dugula, bai, jende askoren iruditerian iraganeko elementu gisa agertzen den ezaugarri hori.

Mundurik onenean bizi garela, mugarik gabe hazten jarraitu ahal izango dugula, kapitalismoak "europarrak" izateagatik errespetatzen gaituela eta Euskal Herriak historian bizirautea lortu duela sinetsarazi nahi bazaigu ere, errealitatea da, prekaritatearen eta gure nortasunaren desjabetzerako erresistentziaren aldetik ikusita, borrokan jarraitzeko nor garen eta zer izan nahi dugun jakin behar dugula.

Nola berreskuratu orduan espazioa eta nola bilatu geure burua iraultzeko unea, eta nola sentitu berriro bere nortasunak eta balioek elkartutako herri gisa? Agian tresna berriak behar ditugu, daudenak ordeztuko ez dituztenak, espazioa monopolizatzea bilatuko ez dutenak eta alferrikako lehian sartuko ez direnak. Agian, tresna berriak beharko dira hustutako espazio sozialetan bizitzatza emateko, bideo-politikaren ikusle gisa pairatzen dugun errealitate bizigabea aldatzeko benetan balioa dutenak.

Agian, gure helburuak, herri gisa, gizakien benetako lehentasunetan oinarritu behar ditugu: gure herriaren eta gure erabakiekin bizi ahal izatea, geure baliabideetatik bizi ahal izatea, beste lurralde batzuk ustiatu gabe eta gurea errespetatuta, gure hizkuntza eta kulturarekin, lan eta etxebizitza duinekin, eskola eta osasun-zaintza publiko eta humanizatuekin, behar gaituzten munduko gainerako herri eta pertsona irekita...

Desira-zerrenda bat izan daiteke, kontsumo-maila altua duten klase ertainen fikzioetik urrun dagoena: turista dirudun pilo duten bizitegi-eremuak, laborerik gabeko lurraldeak eta pobrezia gogaikarria ikusezin bihurtzeko hiri segregatuak... Baina ezin gara espazioa berreskuratzearen eta elkarrekin plan- to egiteko unearen zain egon, Pirinioen bi aldeetan bere ingurua zaintzen duen herri aske eta solidario baten aspaldiko ametsa gure atzetik datozen diezaiekgun ondarrerik onena izango delako. ●

# ZAINTZA EREDUA BERRASMATZEN

Euskal Herrian lehenengo aldiz greba feminista orokorra egingo da azaroaren 30ean. Helmuga ez da greba bera, deia egin duen Euskal Herriko mugimendu feministak hala adierazi du. 30 eragile sozial eta sindikalek baino gehiagok adostutako herri akordioari bultzada emateko baliatu nahi dute greba eguna. 23 aldarrikapen hitzartu dituzte. Helburua horiek gauzatze bidean jartzea da. Zaintzarako eskubide kolektiboa posible egingo duen euskal sistema publiko-komunitarioaren aldeko apustua egin du Bizitzak Erdigunean Euskal Herriko Koordinakunde Feministak.

## ONINTZA IRURETA AZKUNE

**A**zaroaren 30ean egingo den grebaren aurrekaria 2019ko Martxoaren 8a izan zen. Greba hartan, zaintza azpimarratzeko ahalegin berezia egin zen, berariaz bestelako zaintza-sistema baten aldeko aldarria egin zen. Egun hura liseritu eta balorazioak egin ostean, COVID-19aren pandemiak dena geldiarazi zuen. Gainerako herri mugimenduei gertatu zitzaizen bezala, mugimendu feministak ere beheraldi nabarmena izan zuen antolaketan eta ekintzetan. Paradoxikoki, ordea, pandemiak zaintza ezinbestekoa den ideia gizartearen begien bistara ekarri zuen. Birusari esker, inoiz baino gehiago hitz egin zen zaintzari buruz.

Pandemia lehertu zenean, Euskal Herriko mugimendu feministako hainbat

eragilek eta kidek Bizitzak Erdigunean Koordinadora Feminista sortu zuten zaintzaren gaia agendan sartzeko. Koordinakundeak interpretatu zuen gutxienez bi noranzko zituen une kritiko baten aurrean zegoela gizartea. Batetik, zaintzaren krisialdia areagotzeko arriskua zegoen pandemiagatik, eta bestetik, aukera paregabea zen erakundeak interperlatzeko eta oinarri-oinarririk aldaketak egin zitzaizen eskatzeko. Gizartean inflexio puntu bat eragiteko une aproposa zela ere ondorioztatu zuten, zaintzaren inguruko kontzientziari dagokionez. Hala, 2022ko otsailean, Gasteizen, jardunaldiak egin zituzten eta Denon Bizitzak Erdigunean prozesua abiatu zuten. Mugimendu feministak epe ertain eta luzeko prozesutzat du abiatutako bidea eta trantsizio sozial bat eragiteko anbizioz

ari direla azpimarratu du. Jardunaldietan, Hego Euskal Herriko 90 emakume inguru elkartu ziren, bi egunez, eta *Zaintza feministarako sistema publiko-komunitario baterantz* eztabaida-dokumentua partekatu zuten.

Zaintzak ulertzeko modu adostu baterako hurbilpen bat egin zuten, zaintza sistema publiko-komunitario baten lehen ardatzak marraztu zituzten, eta aldarrikapenak eta larrialdiak identifikatu zituzten. Era berean, mobilizazioen beharra azpimarratu zuten Gasteizen elkartutako eragile feministek, eta mobilizazioen zehaztapenak udazkenean heldu ziren. Herrialdeetako asanbladan adostu zuten herri akordio baten beharra zegoela, batetik, eta horri oihartzuna emateko greba feminista orokorra egitea erabaki zuten, bestetik.





Martxoaren 8ko manifestazioa, 2020, Donostia.  
DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA



DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN



DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN



DENON BIZITZAK ERDIGUNEAN



ELA



## GREBAREN KONTRAESANAK

Mugimendu feministak Denon Bizitzak Erdigunean webgunean azaltzen du zergatik erabaki duten greba feminista orokorra egitea. Lehendabizi, "zergatik greba?" galderari erantzun diote. Greba ez dute helburutzat, aurretik egin den eta ondoren egingo den lanari emango diote garrantzia, greba Denon Bizitzak Erdigunean prozesuan inflexio puntu gisa irudikatu dute. Ez dela azkena izango iragarri dute. Grebaren bidez, oinarrian jarri nahi dituzte antolaketa, aktibazioa, saretzea, interpelazioa eta harremanak. Greba honen kontraesanaz jakitun dira: azaroaren 30ean enplegu eta zaintza lanak bertan behera uztea eskatzen da eta askok ezingo dute halakorik egin. Bartzuek ez daukate grebarako eskubiderik, esate baterako, etxetan beharrea ari diren emakume arrazializatuek. Haiena da zaintza lanetako esparrurik zapalduena eta prekarioena. Beste emakume askok, egunero egiten duten bezalaxe, azaroaren 30ean ere, haurra, aitona edo

Etxetan beharrea ari diren emakume arrazializatuek ez daukate grebarako eskubiderik

gaixoa zainduko dute. Zaintza lanak ezin dira inoiz albo batera utzi, ezta greba egunean ere. Horregatik, antolatzaileen iritziz, A30ak potentzialitate hori du, zaintzak ezinbestekoak direla agerian jartzen lagunduko du eta zein baldintzatan zaintzen den azalduko du.

## ZERGATIK DA GREBA FEMINISTA?

Hilaren bukaeran sistema kapitalista,

heteropatriarkala, kolonialista eta arrazista salatuko dute. Zaintza sistemaren pribatizazioa gauzatzen ari diren arduradunak interpelatu nahi dituzte. Era berean, zaintza sektoreko langileekin aliantzak egiteko baliatu nahi dute greba, batez ere orain greban dauden sektoreekin. Greba langileentzat mugimendu feministara gerturatzeko modua izan daitekeela uste dute eta haien borrokek bestelako dimentsioa hartu dezaketela. Nolabait, zaintzaileen politizazio prozesuan tresna bat izan daiteke greba.

## ZERGATIK OROKORRA?

Zaintza sistema iraultzeko aldarrikapenak ozen entzun ziren 2019ko Martxoaren 8an. Mugimenduak erabaki zuen M8tik atera behar zela borroka egun hura, besteak beste, beste behin, zaintzaren gaia emakumeen bizkar gainean gera zitekeelako. Hain zuzen, zaintza jendarte osoari dagokion kontua dela aldarrikatzen du mugimendu feministak, eta horregatik erabaki dute



greba orokortzea, gizonak ere interpe-  
latuak senti daitezten. Antolatzaileek  
azaldu dute zaintzaren ulerketa zaba-  
la garatzen ari direla, ahalik eta jende  
gehien sentitu dadin interpelatua pro-  
zesu honetan, eta grebaren subjektu  
senti dadin.

### GREBA EGUNEAN ZER?

Goizean goizeko ekintzarik esangu-  
ratsuena piketeak izango dira. Mugimendu  
feministak *betiko piketeak* ez  
daitezen izan zaindu nahi du. Emaku-  
meen presentzia bermatu nahi du eta  
gune seguruak izateko bermeak jartzen  
saiatuko da. Lantoki eta sektore sin-  
bolikoak aukeratu nahi dituzte pike-  
teetarako, jakitun ezin direla esparru  
guztietara iritsi.

Lanuzteari dagokionez, beste erron-  
ka nagusia greba egin ezin duten lan-  
gileei ikusgarritasuna nola eman as-  
matzea izango da. Hainbat zaintza  
esparrutan (zahar egoitzak, etxez etxe-  
ko langileak...) gutxieneko zerbitzuak

bete beharko dituzte eta beste hainbat  
langilek, tartean etxetan lan egiten du-  
ten emakume arrazializatu andanak, ez  
dute grebarako eskubiderik. 2019an,  
greba egin ezin zuten emakumeei bal-  
koian mantalak zintzilikatzea propo-  
satu zitzairen. Aurten jauzi bat eman  
nahi da eremu horretan. Horrez gain,

manifestazioen ordua iritsi bitartean,  
zaintza sistemaren pribatizazioa gau-  
zatzen ari diren erakundeen atarietan  
ekintzak egingo dira.

Aurten, aurreko M8etan ez bezala,  
manifestazioak deszentralizatzearen  
alde egin du mugimenduak. Hego Eus-  
kal Herriko lau hiriburuek eta eskualde  
buruek hartuko dituzte manifestazioak  
ordu bertsuan. 17:30-18:00ak alderako  
aurreikusten dira.

Grebaren antolatzaileei galdetu die-  
gu ea zein egiteko duten greba egunean  
gizonek. Enplegu greba egitea eskatzen  
zaie eta zaintza lanak lehenestea. Zain-  
tza lanik ez badute aurreikusten, egune-  
ko ekintzetan eta manifestazioan parte  
hartzea proposatzen zaie. Mugimendu  
feministak argi utzi du greba aurreko  
eta greba eguneko subjektu nagusiak  
emakumeak direla eta prozesu horre-  
tan zaintzaileek eta emakumeek parte  
hartzea lehenesten dela. Mugimendu  
feministaren lidergotza ezinbestekoa  
dela azpimarratu dute.

### GREBARIK EZ IPAR EUSKAL HERRIAN

Greba eguna Hego Euskal Her-  
rian izan da deitua. Ipar Eus-  
kal Herrian azaroaren 17an  
eta 18an grebari eta zaintza  
ereduari lotutako hitzaldiak  
izan dituzte eta azaroaren  
30ean elkarrekin joango dira  
Donostiako manifestazioan  
parte hartzeko.




Emakume bertsolarien esperientziatik eta esperientziez hitz egiten duen komikia

**Eli Pagola, Maitane Gartziandia eta Miren Artetxe**

Preziora **24 €**



## Zaldi bat ihes garrezko zelaian

Euskal prentsak ekarritako zenbait kronika gogoangarri (1869-2000)

**Koldo Izagirrek egindako hautaketa**

Preziora **25 €**

azoka.argia.eus

“ ”

*Komunitateak ez du bete behar administrazioek bere gain hartzen ez dutena*

## Marina Sagastizabal

Marina Sagastizabalek A30eko aldarrikapen nagusia, zaintza sistema publiko eta komunitarioa kontzeptua, xehetzen lagundu digu. Sagastizabal *Hiruki gatazkatsua* (Lisipe) liburuaren egilea da eta mugimendu feministako kidea.

### Nola irudikatzen duzue sistema publikoa?

Zaintza sistemak publikoa izan behar du. Oso zerbitzu gutxi ditugu eta kalitatezko zerbitzu publikoak osatzea nahi dugu, horrek bermatzen duelako, batetik, langileen lan-baldintzak onak izatea, eta bestetik, unibertsaltasuna, hau da, guztiok edukitzea eskubidea zaintza lanak jasotzeko. Eskubide sozialtzat dugu eta hori publikoak bermatzen du.

Alabaina, merkantilizatu gabeko publikoa izan behar du, non negozioa ez den izango helburu bat. Gaur egun ikusten dugu hala dela.

### Zer esan nahi du komunitarioak?

Zaintza eskubide kolektiboa da. Horrek esan nahi du pertsona guztiok, bizitza osoan, askatasunez eta konpromisoz, zaintza eskaini eta jaso behar dugula. Ezin da egon pertsona bat "libre" zaintza lanak betetzetik.

Indibidualki, kolektiboki eta komunitatean inplikatu behar gara zaintza lanak bermatzeko. Norberarenak bai, baina bestelakoak ere bai. Gaur egungo eredu erabat indibidualista eta atomizatua da. Galdu ditugu orain dela hamarkada batzuetako harreman komunitarioak, bizilagunen eta herrikideen artekoak. Horiek berreskuratu nahi ditugu.

Argi daukagu komunitateak ez duela bete behar administrazioek bere gain hartzen ez dutena. Halere, ezin dugu pentsatu langile bat etorriko dela guk beteko ez ditugun lanak egitera. Lan batzuk norberaren ardurapean daude eta norberak bete beharko ditu. Ezinbestekoa da bizilaguna laguntzea, elkar babestea eta zaintza sare horiek indartzea.

Era berean, publiko horretan komunitarioak ere badauka zer esana. Publiko ireki bat irudikatzen dugu, non zainduak izango diren pertsonak, langileak eta ko-

munitateak edukiko duten ahotsa. Sektore publikoan erabakitzeke eta parte hartzeke mekanismoak behar ditugu.

### Komunitarioak zer arrisku ditu?

Kontziente gara komunitarioa ez dela armoniatsua. Botere harremanak daude, zapalkuntzak gertatzen dira... Arrisku handia da feminizatutako komunitate bat indartzea. Mekanismoak beharko ditugu zapalkuntzei eta botere harremanei aurre egiteko, eta zentzu horretan, ardura har dezaten gizonak interpelatzea oso inportantea da, kontuan hartzea ez zaintzea pribilegio bat dela. Gizonen egitekoa ere bada pribilegio hori lantzea, horri uko egitea, eta zaintzen hastea.

Oraindik asko daukagu pentsatzeko komunitarioaren ereduaz.

### Nolakoa behar du publikoaren eta komunitarioaren arteko harremanak?

Zaintza publiko-komunitarioak kokatua egon behar du, bere osotasunean heldu behar dio zaintzaren konplexutasunari, tokian tokiko testuinguru eta egoera askotarikoak aintzat hartu beharko ditu.

Lau eremu zehatzuz hasi gara pentsatzen. Lehenik, autonomia sustatzea eta menpekotasun egoerei arreta ematea. Adinkeria eta kapazitzismoa moduko gaiak asko landu beharko ditugu eta horiei aurre egin. Bigarrenik, haurtzarora. Helduen ikuspegia gaintzea, zainduak direnak subjektu aktibo izatea, hezkidetzatza... Alor horiek denak landu behar dira.

Hirugarrenik, zaintza bizitzan zehar: guztiok jaso eta eman beharko dugu zaintza, eta gainera, hori egin nahi dugu espazio ez tradizionaletik, edo ez behintzat horietatik bakarrik. Familia heteropatriarkalaz harago pentsatu behar dugu. Adibidez, loturagramaz hitz egiten dugu, hau da, nola bermatu legalki elkar zaintzeko sareak.

Azkenik, lurra eta lurraldea zaintzea. Gizakiok elkar menpekoak izateaz gain, eko-menpekoak ere bagara, eta ezinbestekoa da ibaiak, ura, lurra, animaliak eta gure ingurua zaintzea. Ildo horretan, elikadura burujabetzaren eta agroekologiaren aldeko apustua egiten dugu. ●

# Herri akordioa

Urriaren hasieran aurkeztu zuten herri akordioa. Mugimendu feministak eragile soziosindikalen aliantza, laguntza eta elkarlana beharrezkotzat jo ditu. Akordioaren funtsa zaintza eskubide kolektiboa izango da eta EAEko eta Nafarroako gobernuak interpelatu nahi ditu. Herri akordioan ondoko aldarrikapenak adostu dituzte. Hitzarmenen bidez, aldarrikapenok gauzatzea da helburua.



## Epe laburrerako aldarrikapenak


- 1/ Zaintza duinen unibertsaltasuna eskubide gisa aitortzea eta bermatzea.
- 2/ Zaintza sistema publikoa indartzea eta garatzea.
- 3/ Zaintza zerbitzuen pribatizazioa amaitzea.
- 4/ Etxez etxeko laguntza zerbitzua indartzea eta garatzea.
- 5/ Atzerritartasun legea bertan behera uztea, eta bitartean, zaintza langile guztiak erregularizatzea.
- 6/ Erroldatzeko eskubidea guztiontzat eskuragarri izatea.
- 7/ Etxeko langile egoiliarren erregimena desagerraraztea.
- 8/ Etxeko langileak lan-erregimen orokorrean sartzea: Lanaren Nazioarteko Erakundearen 189. hitzarmena bere osotasunean berrestea.
- 9/ Etxeko langileei gutxieneko soldatik gorako lansaria ezartzea.
- 10/ Zaintza sektoreko langileen lan baldintzak hobetzea.
- 11/ Zaintzaileei laguntzeko sareak sortzea.
- 12/ Zaintzeko denborak bermatzea: lanaldia murriztu soldata txikitu gabe.
- 13/ Gizonak interpelatzea, ez zaintzearen pribilegioari uko egin diezaioten eta zaintza lanetan ardura har dezaten.
- 14/ Zaintzeko baimenak zabaltzea eta handitzea: loturagramak.
- 15/ Zaintza lanak transbertsalki lantzea: hezkuntzan, osasungintzan eta lan eremuan, besteak beste.
- 16/ Denontzako pentsio duinak ezartzea: 1.080 eurokoak gutxienez.
- 17/ Agroekologia babestea eta sustatzea.
- 18/ Etxebizitza eskubidea bermatzea: merkatuan esku hartzea.

## Epe luzerako lehentasunak

- 19/ Zaintza sistema publiko-komunitarioa garatzea: aldaketa kultural handia eskatzen du eta transbertsalki momentu oro landu behar da (zaintzaren kulturaren kontzeptua jorratu eta zaintzen politizazioa zein kontzientzia bultzatu, familia heteronuklearra suntsitu, gizonen ardura exijitu, hezkidetzak sustatu eta zaintzan oinarritutako eredu pedagogikoa garatu).
- 20/ Lanaren banaketa sexual eta arrazista amaitzea.
- 21/ Herri antolaketa feminista bat garatzea: espazioen diseinua, denboraren erabilera eta hirigintza –etxebizitza komunitarioak– eraldatu, elikadura burujabetza bultzatu, eta horren bidez hirien eta landa eremuaren arteko harremanak eraldatu.
- 22/ Arrazakeriaren eta biolentzia instituzionalaren aurka borrokatzea.
- 23/ Herri boterea eta gobernantza eredu berriak eraikitzea.

# Sinatzaileak

**Euskal Herriko Mugimendu Feminista · Pentsiodunen mugimendua · Euskal Herriko Eskubide Sozialen Karta · Zaintza Babesten elkarteak · Zaintza Araba elkarteak · Emakumeak Gerraren Aurka · Salhaketa · Ongi Etorri Errefuxiatuak · Lehen Arreta Arnasberritzen · Ernai · Sare Zabalganeko familien elkarteak · Euskalgintzaren Kontseilua · Ikama · Joxemi Zumalabe · Kapitalari Planto · Komite Internazionalistak · Gure Esku · Mugarik Gabe · Fekoor · Euskal Herria Kolonia · AEK · SOS Arrazakeria · Bizi Bisexualitatea · Emagin · ELA · LAB · Steilas · ESK · Etxalde · CGT · EHNE eta CCOO.**



# Lehenengo mugikorra noiz, nola eta zein baldintzapean?

Nerabeari bere lehenengo mugikor pertsonala eman aurretik, zein bide egin daiteke etxean, familiak partekatutako mugikorrarekin?

Eta behin emanda, noiz da unea, zein ezaugarri gailua da egokiena, zein baldintza eta erabilera adostu ditzakegu, zer saihestu behar dugu? Guraso askoren buruhausteari hainbat soluzio eskaintzen dizkion gida praktikoa prest du Izarkom telekomunikazio kooperatibak eta ARGIAk banatuko du, 2.849 zenbakiarekin.

 MIKEL GARCIA IDIAKEZ  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

**K**astetxe eta herri bereko gurasoek seme-alabei lehenengo mugikorra emateko adina elkarrekin adostea eta ahal den heinean atzeratzea dute helburu han-hemenka ugaritzen ari diren ekimenek: gutxienez 16 urte bete arte mugikorrik ez ematea da asmoa. “Adin horretatik aurrera errazagoa izango da erabiltzailea izatea gailua kontrolatuko duena, eta ez alderantziz”, dio gidak, kontuan izanda bate-tik garunaren garapena eta bestetik mugikorrek menpekotasuna sortzeko diseinatuta dauden aplikazioak dituztela. Adikzioaz gain, bestelako ondorio kaltegarriak ere izan ditzake mugikorraren gehiegizko erabilerak, gidan zehazten den moduan.

Kontuak kontu, errealitatea da Euskal Herrian batez beste 12-13 ur-

terekin erosten zaiela haurrei lehen sakelakoa. Talde presioa baldin bada arrazoia, gazteak ez duelako izan nahi mugikorrik ez duen bakarra, gurasoen mugikorra baliatzen hastea gomendatzen du gidak, propioa erosi aurretik. Arrazoia baldin bada gurasoak seme-alabekin harremanetan jartzeko beharra (helduok izan ditzakegun beldur-rrak tarteko), gogoratu deiak egin eta jasotzeko aukera soilik duen telefono mugikorra nahikoa izan daitekeela, ez duela zertan smartphonea izan.

## EMAN AURRETIK, EGOKI ERABILTZEN IRAKATSI

Lehenengo mugikorra eskuratzeko bidean, ibilbide mailakatua proposatzen du gidak, hainbat urrats eta gomen-dio tarteko. Ibilbide horretan, jakina,

gurasoak eredu eta gidari izango dira, eta helduei dagokie norberak egiten duen pantailen erabileraz gogoetatzea eta autokontrola handitzea. Hasteko, gaztetxoekin nola erabiltzen dugu gure mugikorra? Mugikorra eta telebista aldi berean ez jartzea, jaiki berritan, bazkalorduan eta lotara joan aurreko unean ez erabiltzea edota egunean 30 minutuko muga jartzea aholkatzen dute adituek. Gazteak mugikorra bere kabuz erabili nahi duela? Familiarena den gailua utzi, helduaren baimena duenean baino ez erabiltzeko, beti ere espazio partekatuetan erabiltzeko (ez espazio pribatuetan) eta ahal dela gailuak gutxieneko prestazioak izan ditzala (lagunekin-eta konektatuta egoteko oinarritzko beharrak asetzeko adina).

Mugikor pertsonala emateko pre-



Euskal Herriko Telekomunikazio Kooperatiba da Izarkom. Azken boladan, sarri errepikatu dieten galdera bati erantzun behar izan diote: zein adinetan eman behar diegu gure haur edo nerabeei lehen mugikorra? Horrela jaio zen gida.

mia iritsi dela? Deiak egin eta jasotzeko gailua izatea aholkatzen du gidak, smartphonerik ez ematea nerabeak gutxieneko heldutasuna frogatu arte. Lehenengo gailua, gainera, bigarren eskukoa edo familian erabiltzen ez den bat izan daiteke, Wi-fi konexioa baino ez duena. Oraindik ere, espazio partekatuetan erabiltzea da aproposena, eta pribatuan erabiliz gero, seme-alabak aldeztu jakinaraztea zertarako erabili nahi duen. Nerabeak edozein une eta lekutan interneterako konexioa duen gailua lortzea litzateke azken urratsa. Datu gutxiko tarifa bat kontratatu daiteke (gehienez GB bat hilean), zerbitzuaren erabilera arrazoituagoa egite aldera.

### **ERABILERA HITZARMENA: ZENBAT, NOIZ, ZERTARAKO?**

“Mugikorra ematea erabakitzen dugunean, denon ardura da gailuari eman-zaion erabileraz kontziente izatea”,

### **Erabilera kontzientea egin: mugikorraren erabilera noiz da probetxugarria, noiz ez da beharrezkoa, eta noiz ari gara egiten erabilera narkotikoa (beraz, arriskutsua)?**

diote Izarkometik. Telefonoaren erabilera kontzientea eta kontsumo arduratsua bideratzeko, argibideak, arauak eta mugak zehaztea garrantzitsua da. “Gurasoen eta gazteen arteko elkarrizketa eta adostasuna funtsezkoa da: erabilerak justifikatuta egon behar du, eta bi aldeek akordioaren ondorio da”. Guraso eta seme-alaben arteko akor-

dioa edo hitzarmena adosteko unerik onena nerabeak oraindik mugikorrik ez duenean da, eta mugikorra eskuratzeko baldintza gisa. Batez ere mugikorrari erabili ahal izateko denbora, unea, lekuak, egoerak eta arrazoiak zehaztuta geratzea da helburua. Hitzarmenaren galdera ereduak gidan aurkituko dituzu.

Erabilerari muga jartzeak eta erabilera kontzientea egiteak esan nahi du, besteak beste, jakitea noiz den mugikorraren erabilera probetxugarria (norbaitekin informazioa partekatzea, kulturaz gozatzea...), noiz ez den beharrezkoa, beste modu batera ase daitkeelako behar hori (lagunekin hitz egitea, denbora-pasa gisa erabiltzea...), eta noiz ari garen egiten mugikorraren erabilera narkotikoa, eta beraz, arriskutsua (edukiak modu konpulsiboan kontsumitzea, joko jakin batzuetan jolastea...). “Denboraren nozioa eta nahikoa dela esateko gaitasuna galtzen du-



ARGIAren 2.849 zenbakiarekin jasoko dute gida gure irakurleek. Durangoko Azokan ere izango da eskuragarri, Izarkomen mahaian, baita Izarkomen SIM txartela jasotzerakoan ere, hala nahi izanez gero. Eta gida PDF formatuan deskargatzeko aukera jarriko du kooperatibak.

gunean, erabilera narkotikoaz ari gara”.

Hitzarmeneko erantzunak eta adostasunak eguneratzen joatea eta segimendua egitea aholkatzen du gidak, baita zaintza-programak erabiltzea ere.



## Mugikorra noiz, zenbat eta nola erabili adosteko unerik onena nerabeak oraindik mugikorrik ez duenean da, eta mugikorra eskuratzeko baldintza gisa

### KEZKA NABARI DA GIZARTEAN

Besteak beste, telefonia mugikorreko zerbitzuak ematen ditu Izarkom kooperatibak, eta azken boladan, telefono kontratu berri bat egin behar zuten familien aldetik edo besterik gabe zailantza buruan duten guraso ugariren aldetik, sarri errepikatu den galdera bati erantzun behar izan diote: zein adinetan eman behar diegu gure haur edo nerabeei lehen mugikorra? “Bakoitzari egokitutako erantzuna ematen dugu, baina beharra orokortu ahala, erantzun orokor bat emateko premia ere ikusi dugu”, azaldu digu Yaiza Arrizabalaga kooperatibako ki-deak. Horrela sortu da *Nerabeek sakelakoa izate bidean laguntzeko helduentzako gida*.

Idia lantzen hasi eta Som Conexió operadore katalanaren gidarekin egin zuten topo, 2021ean kaleratua. Gida hori oinarri hartuta, Euskal Herrian gaia lantzen ari diren ekimen eta taldeen elkarlanean osatu dute gida: Orkatz Goenaga (Altxa burua), Miren Ros (Gure aukera, guk 16), Telmo Lazkano (*No phone challenge*, *Nerabeen Garrasia*), Leyre Cano (Guraso Treba) eta Rakel Gamito (EHU). “Zaila egin zaigu auzi honek berekin dakartzan dimentsio guztiak sakon azaltzea, ez da bere helburua ere, baina ahalik eta dimentsio zabalena eman nahi izan diogu”, eta gida praktikoa bat da emaitza.

### NON ESKURATU DAITEKE GIDA?

ARGIA astekariaren 2.849 zenbakiarekin jasoko dute gida gure irakurleek, abenduaren 3ko data daraman alearekin. Durangoko Azokan, Izarkomen mahaira hurbilduz gero, eskuratu ahal izango du, baita Izarkomen SIM txartela jasotzerakoan ere, hala nahi izanez gero. Gida PDF formatuan deskargatzeko aukera ere jarriko du Izarkomek, bere webgunean. Gida bizia izan nahi du gainera: “Digitalizazioaren garaiotan gauzak oso azkar doaz, gomendioak ere azkar aldatzen dira eta bide horretan, gidak ahalmena izan behar luke beharrezko moldaketak jasotzeko”. ●





# Menda Bikoitza

Bi astelehenean behin  
ARGIA eta audio  
plataforma guztietan

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

Garbiñe Larrearen podcasta

Sendabelarrei buruzko  
bitxikeriak, erabilera  
praktikoak eta elkarrizketak

 ARGIA



# Argentinaren aienea

Nola jakin zenuen Argentinan hauteskundeak zirela? Javier Milei ero baten bideo biralizatuari esker izan zen? Noiz utzi genion Hego Amerikako politikari begiratzeari? Noiz erabaki genuen geure lekua Europa zela? Argentina krisiengatik iristen zaigu, edo politikari ero bat presidentetzara iristeko zorian dagoelako... Argentinak, baina, botereari oso arriskutsu zaizkion ikasgai asko ditu guretzat, Argentina 2001eko kritik modu batera, eta ez beste batera atera zelako, adibidez, herriak hala nahita, antolatuta. Nori begira gaude gu? Nor izan nahi dugu?

 UXUE APAOLAZA LARREA

**E**z da ezer saltzeko modu onena, baina testu hau triste hasiko dugu, eta berdin bukatu. Ezkerrak ez du lekurik izango Argentinako hauteskundeetako bigarren itzulian, eta hori ez da aldatuko azaroaren 19ko *ballotagea* irabazten duenak irabazita ere. Hauteskunde sistemak ez die alderdi txikiei aukera handirik ematen, horren froga presidentetza hartzeko aukera zuten hiru indarrak koalizioak izatea: koalizio horien baitatik joera bateko edo besteko hautagaiak atera izan dira, eta, oraingoan, bi oso eskuindar eta, peronismotik, ez-ekertiar bat aurkeztu dira. Juan Graboisek, koalizio peronistan militatzen duen humanista ezkertiarrek, erregutu zuen telebistaz emateko botoa hautagai peronistari, nahi bezain ezkertiarra ez bada ere: "*Si no es el amor, que sea el espanto*". Nahi gabe (agian horrela aipatzen dute argentinarek) Borgesek bere hiri Buenos Airesi idatzitako poema parafraseatzen ari zen, "ez gaitu maitasunak batzen, espantuak baizik, horregatik maite dut hainbeste". Espantuak gauza asko esplikatzen ditu oraingoan.

Testuinguru hurbilekoena. Lehen itzulian "lasaitua" izan zen hitza demokraziaren edozein kontserbazionistaren ahotan; izan ere, Milei neoliberal eroa presidentetzatik apur bat nola urruntzen zen ikusi ahal izan zuten, peronis-

moak aurkeztutako hautagai liberala, Massa, aurretik zuela: espantuak irabazi zuen. Milei beharrezko zutenen beste garaipen bat da, agian, plastilnazko Massa bera (ez dakit Fouchéri aipamen bat egitea gehiegizkoa den, Massari duena baino kolore gehiago ez liokeen emango).

Testuingurua apurtxo bat zabaltzen badugu, eta PASOaren (primario irekiak) oso aurretik hasitako hauteskunde kanpainari erreparatzen badiogu, nahiko nabarmena dirudi, egoera nola tenkatu duten ikusita (Cristina Fernández presidenteordeak zorionez huts egin zuen pistola bat eduki zuen burutik zentimetro gutxira), eskuinak asko zuela jokatzeke. Bistakoa dirudi alde batera edo bestera erabakiak hartu beharko direla, jakina da herritarrek, hor azpiko masa hori, daudena baino kolpatuago amaituko dutela, eta neurtu behar da hori matxinada noiz eta nola bihur daitekeen, 2001ean nola, aurkitu behar da, dirudienez, oihu hori txikizio ez bilakatzeko erdibide bat: biziraupenerako gutxieneko itxaropena izan, edo itxaropena guztiz erauzi. Dirudienez, lehen aukerak irabaziko du: ez dute azpikoen aldeko politika argirik egingo, baina elikadura eta giza itxura bermatuko dizkiete. 2001ean erdibide horiek ez zuten balio izan, eta egoerak gero eta antz handiagoa dauka.

Testuingurua beste pittin bat hedatuta, aurten Argentinako demokraziak 40 urte bete ditu. Kirchnerismoak 20. Eta bi-biek eman dute zeresana kanpaina honetan, eta izan dira zenbait joera eta sinboloren oinarri. Eta, batez ere, biek dirudite arriskuan oraingo honetan.

Testuingurua, finean, Argentina da. Argentina munduan. Argentina FMIArekin zorpetuta. Argentina, nazioarteko geopolitikan txertatuta. Argentina hiru zifrako inflazioarekin, dolarraren mende, Brasileko politikari hark (Samuel Pinheiro) esan zuena bermatzen: "Hego Amerikako herrialde nagusia Ameriketako Estatu Batuak dira". Argentina, berez, beste guztiak bezala, burujabetzarako bideen eta mendekotasun errepideen prezioak alderatzen. Bertako tertuliakide askoren ahotan ere entzuten da: "Ezin ezer auresan Argentinan, Argentina auresanezina da, Argentinan edozer gerta daiteke". Tira, ba, berez, ez dirudi.

Zein izan dira presidentetzara iristeko aukera izan duten, eta Argentinako politikaren konpasa markatu duten koalizioak? Ondorengo hiru hauek.

## Unión por la Patria

Zeina den 2019ko Frente de Todos koalizioaren jarraipena, zeina zen 2003an sortutako Frente para la Victoria kirch-



Zeresan handia eman du Javier Mileik.

VOX / WIKIMEDIA COMMONS

neristaren jarraipena. Sergio Massa liberala izan da presidentetzarako hautagaia, peronismoaren aukera ezker-tiarrak baztertuta, Cristina Fernández de Kirchnerren gertukoagoak, hala nola Kiciloff, Ekonomia ministro ohia; Wado. Kantu lehiaketetan herritarren botoen gainetik epaimahai kualifikatu batek erabakitzen duen bakoitzean bezala da. Ez duzu ulertzen zergatik irabazi behar lukeen tipo horrek, baina irabazi egiten du. Zerbait dakite zuk ez dakizuna. Eta peronismoak zerbait baldin badaki, eta zuk ez, jendeak zer nahi duen da. Eta jendea, batzuetan, enpresariak dira.

Sergio Massa oso gazte hasi zen militatzen, eta onartu behar zaio originaltasuna. Normalean, jendea ezkertiarra da gaztetan, eta heldu ahala, heldutasun ideologikoan ere sartzen gara, alegia, hil egiten zaigu sormen politikoa, eta kontserbadore egiten gara. Massari ez, Massa oso gazte alderdi liberal batean hasi baitzen militatzen. Eta liberala izaten jarraitu du, behar zenaz jantzita (horregatik etorri zait gogora Fouché hura). Massari denek deitu diote (Macri eskuindarrak, Kirchner ezkertiarra- goak), psikopatiarako erraztasuna duen teknokrata trebe xamar bat behar izan duten bakoitzean. Eta berak ez die eze- tzik esan. Eta orain ere horretarako kon- tratatu dutela dirudi.

---

Mileik ardatza mugitu du. Milei jar ez dadin peronismoak Massa onartu du. Eskuina egotea komeni zaienei orain Mileik beldurra ematen die

Hautagai izendatu arteko bidea gorabeheratsua izan da; gobernu peronistak ez du asmatu bere masari erantzuten, eta agintaldi amaierara dezenteko kaos iritsi dira. Kaos horretatik ezkerretik ateratzeko aukerak ito ziren kirchnerismoaren hautagai behar zuenak, Wadok, bere burua erretiratu zuenean (pentsatzekoa da telefono deiren bat jaso ondoren), Massa, aurkezteko faborea egitekotan, lehiakiderik gabe izango baitzen. Grabois, kartoneroen eta ekonomia herrikoiaren errebelde humanista, apuntatu zen orduan primarioetara, Massari zegozkion epite- toak jartzeko, peronismoaren ezkerri kopurua zehazteko, kopuru horrekin, orain, presio egiteko.

Argentinarrak argentinaz izateagatik omen dituzten berezitasun horietakotzat jo da lehen itzuliko Massaren garaipena: "Nola da posible hainbesteko inflazioa duen Ekonomia ministroak presidentetzarako hauteskundeak irabaztea?! Hori Argentinan baino ez da gertatzen!". Baina Massa ez da bere ministro lanetik apartatu, horixe izaten ari da bere kanpaina besteek platoz plato eztarria uzten duten bitartean: neurriak hartu, parekoak hartuko ez lituzkeenak agerian utzi, ekonomia hankaz gora jarri nahi dutenen aurrean sendo agertu (izan du lehen krisia gasolina horniketa eten diotenean). Tira, ez dira hain bereziak argentinarrak. Edozein suediarrek, Alemaniako kontserbadorek, edo sozialdemokrata frantziarrek emango lioke botoa Massari. Baita zure moduko euskaldun ezkertiar batek ere. Izan ere, nor dago parean?

### La libertad avanza

Javier Milei du parean, bere burua anarkokapitalistatzat eta libertariotzat definitzen duena. Gainerakoek beste epite- to batzuk jarri dizkiote: motozerraren eroa, profeta faltsua, demokraziarentzat arriskutsua, negazionista multiplea... eroa. Mileiren osasun mentala tertulietako ohiko gai bihurtu da, eta hainbat kazetariren analisi politikoaren erdi- gunean dago. Berezi perturbatzaileak

izan dira egin dituen deskribapen aztoragarriki zehatzak haurrak bortxatzeari buruz, emakumeak bortxatzeari buruz, baselinari buruz... Berak ere jarri du bere aldetik, beraz. Ez da biralizatu, ordea, arriskutsua zenean, biralizatu da pertsonaia arriskutsutik erridikultura eramateko ordua iritsi denean. Plana ez baitzen ezer aldatzea.

Baina zer dio Javier Mileik? Zeren eta Massak irabazten ez badu, bera izango da Argentinako presidente, ia zortzi milioi boto jaso zituzenez lehen itzulian, eta ez dirudienez galduko dituenik. Eta, izan ere, Milei hizketan jarritz gero, badu esatekorik. Eta esateko zuenagatik eman diote botoa hainbeste pertsonak: soluzioak zituen, eta jendeak orain konponbideak behar ditu.

Lehen aipatutako Juan Graboisekin bost orduko eztabaida bat egin zuen telebistan. Berritro esango dut: bost orduko eztabaida bat. Izan ere, Milei idealista teoriko bat da. Dolarizazioa izan da gaitz ia guztien, batez ere inflazioaren, sendagarri saldu duen erremedioa: pesoa desagerrarazi, eta Ameriketako Estatu Batuetako txanpona hartu, berehala hasieran, mantsoago gero, oso geldo orain. Banku Zentrala ixtea. Justizia sozialari "aberrazio" esaten dio. Neoliberalismo ekonomikoa azken muturreraino eramaten du, teorian, organoen salerosketaren alde argudiatzera iritsita.

Eta, hara, erraz baretzen zaizkigu beldurrak. Beldurrak helburua lortu denean, hain zuzen. Mileik ardatza mugitu du. Milei jar ez dadin peronismoak Masa onartu du. Eskuina egotea komeni zaienei orain Mileik beldurra ematen die, ezker "helduetan" ezkertiar itxura duen ezkertiarregi bat agertzen denean bezalaxo. Profeta faltsuarena egia bilakatzeko ez dugu presidente ikusi behar izango. Hori baino lehen aukeratu behar izan du koherentzia politiko-ekonomikoaren eta anbizioaren artean; eta bigarrenak irabazi du. Botoak behar ditu, Juntos por el Cambiorenak. Eta sistemak, batere aldatu gabe, badu neoliberal psikopata baten ametsak asetzeko adina mekanismo.

## Juntos por el Cambio

Presidentetza lortzeko aukera zuten hiru koalizioetatik Juntos por el cambio geratu zen bigarren itzulitik kanpo. Argentinako hurrengo presidentea koalizio honetatik aterako ez bada, zergatik bereganatu du inork baino arreta mediatiko handiagoa *ballotagearen* bezpe-

Krisi hura telebistaz ikusi genuen. Cacerolazoak; Corralitoa; desesperazioa supermerkatuak sakeatzen; presidentek helikopteroz alde egiten; herria antolatzen

ran? Bai Massak, bai Mileik beren boto emaileak behar dituztelako.

Koalizioak Patricia Bullrich aurkeztu zuen presidentegai, deskalkifikazio pertsonalak gorabehera, Mileiren ikuspegitik ez hain urrun ibili den eskarmentu luzeko hautagaia, Massaren kontrako bide ideologikoa egina (gaztetan peronismoko alderdi ezkertiarrenetan ibili zen, Montoneros izenekoan, erradikalismoan militatu zuen, eta PRO eskuindarrean amaitu du). Ordena izan da bere lema, Mileik estatu errakitikoren bat utziz gero, onartuko lukeen ministerio bakanetakoa. Eta Bullrich izana da segurtasun ministro Macri presidente zen garaian, eta Santiago Maldonado, Rafael Nahuel... entzuten zaizkio atzetik masuren batzuen oihuak.

Galdu egin zuen. Eta koalizioak eztanda egin du justu koalizioa osatzen duten bi arimen arteko pitzaduratik. Mileik

haur eskoletan bonbak jartzen aritu izana leporatu dio Bullrichi kanpainan, baina lehen itzuliko emaitzak jakin orduko hasi ziren bien arteko hurbilketak. Macri presidente ohiak hasia zuen lehenago ere gerturatzeko hori, eta bera da koalizio barruko alderdi eskuindarraren sortzailea (PRO). Koalizioaren zati batek Mileiri emango dio botoa, eta, ziur asko, kendeuko dio boterea: boto horiek eskaeraz betetako zerrenda batekin etorri baitira.

Mileik, ordea, eduki ditu hitzak koalizioaren beste arima handiarentzat ere, erradikalentzat. Erradikalak tradizio oso luzea dute Argentinan, eta herrialdeko hamar presidente atera dira bere kideen artean. Alfonsin horietako bat, Videlaren diktadura ostean aurten 40 urte bete dituen aro demokratikoa estreinatuta zuena. Mileik, besteak beste, esan du bere terapietako bat Alfonsinen aurpegia duen panpina bati jotzea dela. Erradikalismoaren mota guztietako oinarrien kontra doa Milei. Ez diote botoa emango. Horiek Massarenak dira.

## Kirchnerismoa

Kalafate Taldea izenekoa 1998an sortu zen, peronismoaren baitan Menemen ildo politikoari aurre egiteko. Menemek peso bat dolar bat bihurtarritasuna ezarri zuen, fabrikak eta herrialdea saldu, zorpetu. Eta, jakina denez, 2001ean guztiak eztanda egin zuen: *Que se vayan todos*. Eta ikusi genituen, krisi hura telebistaz ikusi baikenuen, *cacerolazoak*; hautesontziak boto zuriz edo "voto bron-





Ezkerreko argazkian, Sergio Massa. Goian, Cristina Fernández.

ca" esan zitzaizen nulo horiez beteta; *Corralitoa*; trueke klubak; desesperazioa supermerkatuak sakeatzen; piketeroak kalean eskubideak borrokatzen; errepresioa herritarrak asfaltoan hiltzen; harriak airean; fabrika berreskuratuak; setio egoerak; presidenteak dimititzen; presidenteak helikopteroz alde egiten; herria antolatzen. Eta oraingo arazo berberak: bihurtgarritasuna eta zorra.

2003ra arte presidenteak jarri berri-tan kentzen ziren, herriak ez zuen erdi-biderik onartzen, ezin zuen, goseak zegoen. Garai hartan politizatu ziren gaur egun kirchnerismoaren barruan Mas-sarekin aurrez aurre ibili diren zenbait politikari: Wado eta Grabois.

Eta ez krisitik, baizik eta herriak krisiari era antolatuan erantzuteko izan zuen gaitasunetik, jaio zen kirchnerismoa, masaren amorruaren boterea irakurtzen jakin zuelako, hitzak eta manierak aurkitu zituelako kalean ereindakoiari erantzuteko. Eta, hala, 2003ko maiatzaren 25ean Nestor Kirchnerrek irabazi zuen Argentinako presidentetza. Eta orduan markatu ziren kirchnerismoaren ildoak, Mauricio Macriren presidentetzaren lau urte suntsitzaileak kenduta, hogeitaz Argentinako gobernatu duen indarrarenak. Ez da indar iraultzatzaile bat, baina gero Kiciloff Ekonomia ministroak hitzez hitz deskribatuko zuen keynesianismo moduko batekin, gutxienez, herria ez traizionatzeko bo-kazioa zuen (Menem zer izan zen trai-

## Hainbat prozesu judizialetan kateatuta, kondenatuta, ia asasinatuta, erretiratzera doa, kirchnerismoaren buru izandako Cristina Fernández

dore bat ez bazen). Diktadurako krimenengatik epaiketak berrireki ziren; 2005eko Ameriketako Goi Bilerako irudi haiek ikusi genituen, Bushi Hegoamerika ustiatzeko bere ALCA hura, Chavezen hitzetan, "Al carajo" bidali ziotenekoak, Venezuela, Argentina eta Brasil buru zituen burujabetza erakustaldi batean; FMIarekin herrialdeak zuen zorra kitatu zen. Eta hasi zen hazten kirchnerismoa agintean egon zen garaian loratu zen klase ertaina.

Peronismoak, krisi testuinguru honetan, oraingoan, ez du 2003an kirchnerismoak egin zuen apustua egin, kontrakoa baizik. Kirchnerismoa zain gelditu da presidentetza baino beheragoko karguetan; agian, Kiciloff, botoen %45arekin berrirabazi duen Buenos Airesko gobernuan, esperoan baino ez da geratu, 2003 baten zain.

## Cristina Fernández

Iazko abenduan, afari batean, buruzagi eta funtzionario peronistaz inguratuta, Cristina Fernández de Kirchnerrek bere erretirada aldarrikatu zuen ia: peronistak zirela gogorarazi zien han bildutakoei, eta eskatu, hala zirenez, hartzeko behingoz mariskalaren makila. Itzal luzeko hitzak dira. Peronek berak esana da peronista guztiek daramatela motxilan mariskalaren makila, Napoleonek soldaduei esaten omen zien moduan. Hartu mariskalaren makila. Hainbat prozesu judizialetan kateatuta, kondenatuta, ia asasinatuta, erretiratzera doa bi bider, 2007tik 2015era, Argentinako presidente eta hogeitaz urtez (senarrarekin hasieran, bakarka azken 13 urteetan), peronismoa zuzendu duen kirchnerismoaren buru izandako emakume hau. Eta, momentuz, ez dirudi inork mariskalaren makila konbikzio handiegiz hartu duenik; ez dirudi, momentuz, Cristinak ondorengorik duenik.

2007an hartu zuen presidentetza, senarrak agintaldia amaitutakoan, eta zortzi urtez egon zen karguan, kirchnerismoari gorputza, kolorea eta etsaiak emanez.

Nekazaritzako grebak jasan zituen, aerolineak berreskuratu, korporazioen aurkako borroka etengabe ibili zen, babes sozialerako hainbat lege atera ziren, pobreziaren jaitsiera ikusgarria gertatu zen, klase ertainaren igoera, YPF berreskuratu zen, eskualdearen destino komun eta burujabea defendatu, komunikabideez argi hitz egin, legislatu...

Eta, gertaerekin batera, estilo bat. Oharkabean pasatzen ari zaiguna, eta hona gutziz erridikulizatua, karikatuzatua iritsi zaiguna. Ideia zoroko emakume ezegonkor eta ero samarra iritsi zaigu, gehiegi makillatua, bere ekonomia ministro gazteaz maitemindoa, Europako politikari grisena batere antzik gabea. Ezinezko erretirada honetan egin dituen agerpenetan ere, irmo ikusi dugu, suminduta, ozen hitz egiten: botereei aurre egiten esan baitu agur, eta ez dakigu espetxean ikusiko dugun. Agerpen beretan ikusi dugu hunkitzen, malako eta guzti. Oihu egiten duen emakume bat, ez dena afarrietan bakea jartzen duena, gatazka sortzen duena baizik, eta, gero, ahul agertzeko inongo beldurrik gabe negar egiten duena. Bi bider presidente. Botoen %54 lortuta. Kirchnerismoa ez da Néstor Kirchner. Eta guri masak nahiko ezkerretik mugitzeko gaitasun populista izugarria izan duen emakume bat pasatzen ari zaigu. Eta krisietatik behetik gora irteten jakin duen herrialde baten ikasgaiak. ●

# EZKAIA UDAZKENEAN



ISTOCK



GARBIÑE LARREA ITURRALDE

**U**dazkenak udatik duena galtzen hasia dugula dirudien honetan, hego haizea apaltzen eta gauak hozten ari direlarik zuetako askok jantziko zenuten dagoeneko berrokia. Gure etxean beroki berria Santu Guztien Egunean estreinatzen zen, kanposantura dotore joateko, eta hori poz txiki bat izaten zen azaroak ekarri ohi digun iluntasunean.

Iluntasuna eta berarekin batera hotza, maiz hezetasuna ere lagun dutelarik, barruraino sartzen hasten zaizkigu eta hor komeriak izaten ditugu. Askori entzun izan diot hilabete honetan hasten dela ezkaiarekin akordatzeko eta gaur berari egingo diogu leku, ezkaia edo xarlatxari. Gure artean *Thymus vulgaris*, *Thymus citriodora* eta *Thymus serpyllum* motak aurkituko ditugu eta hemen esatera noanak hirurentzat dira baliogarriak.

Jatorriz isurialde mediterranean aurkituko dugu baina baratzean edo loreontzian duenak ziurrenik pare bat aldiz kimatuko zuen aurten. Usain sarkorrek olio esentzial sendoak dituela

adierazten digu, hain zuzen ere naturan dugun antiseptiko edo garbitzailerik handienetakoa da. Ez alferrik pobreen desinfektagarri deitzen zitzaion. Ere mu zabaleko gaitasun antiseptikoa du eta birusetatik, bakterioetatik eta ondoetatik datozen infekzioak garbitzeko gai da.

Tradizioz arnas aparatua garbi mantentzeko erabili izan dugu baina hesteak garbi mantentzeko ere egokia da, baita maskuria eta azala garbi izateko ere. Sistema inmunearen indargarri dugula esan dezakegu, modu jarraian hartuta leukozitoak igotzeko gai dela ikusi dugulako.

Urte sasoi honetan komeni zaigu jakitea ez tularen kontra egiten duen sendabelar baltsamikoa dela. Halakoetan intsusaren lorearekin (*Sambucus nigra*) batera infusiotan hartzea gomendatu izan dut nahiz ez tul-belarrak (*Tussilago farfara*) bezalakoek hobeak diruditen. Nik ezti pixka bat ipintzen diot, ezkaia-eren ezti hain zuzen. Ez dut esan baina ezkaia-erle-belarra ere deitzen zait, Lapurdin jasoa da honako esaera: "xarlatxak eder lilia, erleak hara lehia".

Azaroa hotza denean gorputza berotzeko gai da eta hezurretaraino berotzeko gaitu, hala erreumarentzat egokia dela ikusten da. Halakoetan, jengibre (*Zingiber officinale*) freskoa birrindu, bost minutuz egosi, ondoren ezkaia ipini eta beste bost minutuz tapatuta edukiko dugu; infusio hau goizean baraurik hartzea ideia ona da eta gorputza hoztuta nabaritzen dugun aldiro bigarren infusioa hartzea ere bai. Otordu astuna egin ondoren ere lagungarri izango zaigu.

Garai honetan baratxuri eta ogi zopa egiten duenak hortxe du aukera ezkaia ipintzeko, hori ere infusiotzat jo genezake-eta.

Inmunitatea ahularazteko botikak hartzen dituztenentzat ez da egokia eta haurdunaldiaren lehen hiruhilekoan ere ez litzateke erabili behar. Hipertiroidismoa badago neurri txikian eta puntualki bakarrik erabili behar da, tiroidearen hormonetan gorabeherak eragin ditzakeelako. Egunero hartuz bi hilabete egiten badira pare bat asteko etenaldia egitea komeni da. ●

## A ZE FAUNA!

# ZERU KOLOREKO BORROKALARIA



**IÑAKI MEZQUITA ARANBURU**  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO KIDEA

**B**aliteke erreka baten ondoan egin dako ibilaldiren batean, zurtoin edo landare baten muturrean, “botoi urdin distiratsu” bat ikusi izana. Baliteke ere, zer ote zen jakinmin ez, bertara inguratu izana... Eta, gertutik ikustean, harriturik gelditu: ba al da bada zeru koloreko kakalardorik gure lurtean? Sarritan, urruneko faunaren distira, kolore eta aniztasunez beteriko dokumentalak ikusten ditugu, baina halako bitxirik gure artean badagoenik...! Jakina, txikia da, baina bitxiek horrelakoak izan behar omen dute.

*Hoplia coerulea* bizimodu interesgarriko kakalardo bat da, koleopteroen ordenakoa. Intsektu talde horretako 300.000 espezieetik gora ezagutzen ditugu. Maiatza eta abuztua bitartean ikusi daitezke espezie horietako helduak, aktibotasunean egun osoan. Intsektu helduak diren tarte horretan izan ezik, lurrazpian bizi dira, hau da, larbak direnean. Maiatza inguruan arrak, erabat heldu eta gero, lurrazpitik atera eta landare edo lore baten muturrean jartzen dira emeen zain. “Borrokalaria” deitu diogu artikulu honen izenburuan, arrek ostikadaz bidaltzen baitituzte bere zain-lekua lapurtu nahi dioten arerioak (izenean daraman “hoplon” hori “arma” da antzinako grekeran). Horretarako, bere atzeko hanka indartsuak beti prest izaten dituzte ostikadak banatzeko. Horrela, ar indartsuenek behaleku

onenak eskuratzen dituzte, eta lehiaketa horri esker espeziearen etorkizuna indarturik suertatzen da.

Zer jaten duen edo, hobeto esanda, zer ez duen jaten, ez dago batere garbi. Eta horregatik elikagai askoz elikatzen direnen multzoan sailkatu dute (polifagoen artean, hain zuzen ere).

Arrak urdin argiak dira, kolorazio urdin metaliko ikusgarrikoak. Emeak

## HOPLIA COERULEA *Hoplia coerulea*

**TALDEA:** Ornogabea / Intsektua

**NEURRIA:** 8 mm inguru.

**NON BIZI DA?** Ur-lasterren ertzetako landaredian, edo gertu.

**ZER JATEN DU?** Ez dakigu, bere biologia oso gutxi ezagutzen baita.

**BABES MAILA:** European babestua.

berri, Natura jakintsuak gehienetan erabaki duen modura, kolorazio apalekoak dira, marroixkak, eta hori bere alde daukate beraien eta espeziearen biziraupena lortzeko. Emeen kopurua, halere, arren kopurua baino dezent txikiagoa izaten da (batzuen ustez, mila ar eme bakoitzeko!). Ar ugaritasun hori engainagarria suertatu daiteke, oso azalera txikian asko ikusi baitaitezke,

kontzentrazio jokabidearen eraginez. Bere hedapen mapak espeziearen urritasuna adierazten du: Frantziako Estatuko beheko erdia eta Iberiar Penintsulako ipar-ekialdea, Asturiastik hasita (Leonen ere ba omen da aipurik). Badirudi Suitzan ere aleren bat aurkitu dela. Hala eta guztiz ere, zaindu beharreko espeziea da, argi eta garbi.

Ederrak dira benetan arrak eta, tamalez sarritan gertatzen den bezalaxe, edertasun hori zorigaitoa izan ohi da beraientzat, orratz batek zeharkatuta bildumazaleen koadroetara eraman izan baititu, asko eta asko.

Ur-lasterren inguruan aurkitzen da beti, normalean ibai eta erreka ertzetako landaredian. Leku horiek, sarritan, aldaketa eta degradazioa pairatzen dituzte, eta horrek kakalardo eder honentzako ondorio txarrak ditu. ●



IÑAKI MEZQUITA ARANBURU

# AGUR INTXAURRANDO, AGUR!



JAKOBA ERREKONDO  
JAKOBA@BIZIBARATZEA.EUS



JAKOBA ERREKONDO / CC-BY-SA

**A**gur intxaurrondo, agur! Bat-batean atera zitzaidan urriaren 21eko Landaberri irratsaioko kontsultategian. Azken urteetako erretolika bihurtu zaigu intxaurrondoari (*Juglans regia*) buruzko zalantza. Hasieran ia itsasertzeko bere bizilekue-tatik soilik zetorren kezka, baina urte gutxiren buruan ederki barruratu da. Ez da Euskal Herriko lurralde lehorrenetara iritsi, eta ez da iritsiko, noski, baina hori ezin dut hain garbi esan.

Gure lurralde hezeetan intxaurrondoak ez du etorkizunik. Kitto. Bereak egin du. Lehen ere sekula ez da izan nonahi oparo hazi eta bizitzen zen arbola. Ale ederrak ezagutzen dira, Gardeko plazan Gardalar erreka ondoan bizi dena, adibidez; bere 1,3 metroko gerriarekin, 17 m garai eta 30 x 25 metro koadroko hedadura, 1991n, Monumentu Natural izendatu zuten. Tamaina fisikoa ez baina ondare izendatzeko moduko tamainakoa da beste Errekalde batekoa: Zizurkilgo izen horretako baserrikoa zen Pedro Mari Otaño, eta hango atariko intxaurrondoari

jarri zizkion bertso ederrak Argentinan atarian zuen onbuarekin alderatuz. Onbua (*Phytolacca dioica*) lurralde haietako zuhaitz garrantzitsua da eta bere izenak garrantziaz "itzal" esan nahi du. Itzalarren bi zentzuak ederki osatzen dituzte bi arbolok, baina hemen intxaurrondoak luze gabe galduko ditu, bera desagertuko da-eta. Desagertu desagertu agian ez, baina lehen gaztainondoa (*Castanea sativa*) edo zumarra (*Ulmus minor*) eta orain insignis pinu beltzari (*Pinus radiata*) gertatu bezala, han-hemenka ale bakan batzuk besterik ez dira biziko laster. Otañoena bezala etxe aldamenen daudenek aukera gehiago izango dituzte: "Intxaurrondoak etxeko errietak entzun behar ditu", dio esaerak. Ez errietek biziberritzen dutelako, gehienetan, lehen ukuilua bertan izaten zenez, etxepeko orubea ongi ongarrirua delako eta, batez ere, lehorra delako. Intxaurrondoa hezetasunak eramango du. Hezetasunak ondoak suspertzen ditu, eta zauri tiki bat nahikoa da handik sartu eta bere zura hasieran iruditu eta gero usteltze

bidean jartzeko. Egungo zauritzaile nagusiak dira buztin lurren busti-lehorretako mugimenduak, urasetu eta puzteak eta lehortu eta arrakalatzeak sustrai ahulak puskatzen baitizkio; baita mugarrotzearen zauri larriak ere; eta azken izurrite gogaikarriaren erasoak, *Rhagoletis completa* euliarenak. Azken hori ematen ari zaio errematea. Uda partean arrautzak jartzen ditu intxaurre alea hazten ari denean, bere zokoten gurian eta handik sortzen den harrak triskantza handia egiten du jan eta jan, zauri larriak eraginez. Zauri horietatik sartuko da gaitza, hezetasunak bizkortzen duen onddoa.

Hauxe da panorama: enborraren ipurdian jariakin beltza, sustrai zaurituen adierazle; enborra barrutik iruditu-belztu-usteldua; eta intxaurre aleak zokotenetik bereizi ezinik eta mamia osatu gabe.

Gure amona-aitonek gaztainondoa agurtu zuten modutsuan dagokigu guri orain "agur intxaurrondo, agur!" esatea. Halabeharria, biak erromatarren ontzi berean etorri ziren Mediterraneoeko lurralde lehorretatik... ●

HEMEN DAGO  
NAFARROA

Zigilu honen atzean, zapore on eta kalitate handi bat baino askoz gehiago dago. Klima eta paisaia paregabeak, jakinduria eta lana daude.

ReynoGourmet.com **REYNO GOURMET, NAFAR KALITATEA**



# GAZTAINA BIZIARAZTEKO EKIMEN KOLEKTIBOAK IPARRALDEAN



GARAZI ZABALETA

**G**aztaina berreskuratzeko eta eraldatzeko proiektua esku artean du Gilles Texier urepeldarrak duela zenbait urtetik. Aldi bat kanpoan eman eta gero, duela hamar urte bueltatu zen Urepelera, eta gaztainaren jakintzaren inguruko ekimen batean piztu zitzaion interesa: “Transmisio eguna antolatu genuen, eta herriko adinduak gonbidatu genituen gaztainaren inguruan zuten jakintza besteekin partekatuzeko”, azaldu du. Geroago, autonomia komunalaren topaketa batzuetan, gaztaina berreskuratzeko ideia planteatu zuen Texierrek, eta lehen hazi hartatik hainbat egitasmo jarri dituzte martxan urteotan.

## AUTONOMIA ETA KOLEKTIBOAK

Ardeche eskualdera joan zen Texier hango proiektuetan ikastera: “Frantzia gaztaina gehien ekoizten den eskualdea da, eta hango laborariak lan nola egiten duten ikustera joan nintzen, nire kasa”. Handik bueltan, 2018an, gaztaina lantzen hasteko proiektua abiatu zuten modu kolektiboan Urepelen: lursail bat hartu zuten, hura garbitu, eta gaztaina biltzeari, lehortzeari eta irina egiteari ekin zioten. Kirikiñausi izena zuen kolektiboak, gaz-



tainak kontserbatzeko harrizko gordailu tradizionalei erreferentzia eginez. Gaur egun eraldaketarako erabiltzen dituzten zenbait tresna haiek jarri zituzten martxan; hala nola, lehortzeko instalazioak eta gaztaina lehortuak zuritzeko makina.


Duela urtebete, berriz, bere kasa lanean hasi zenean, Gaztaina elkartera batu zen Texier, eta taldeko beste kide batzuekin batera, gaztaina eraldatzeko nabea muntatu dute elkarlanean. Kalibratzeko, zuritzeko eta txikitzeko tresneria eta gaztainak gordetzeko kamera hotz bat dituzte bertan. “Gaztaina krema, erreximenta eta gaztaina naturala, zuritua eta potetan sartua, egiten ditugu”, azaldu du.

## SASITUTAKO GAZTAINADIAK BERRESKURATZEN

Elkarteko beste kideek ez bezala, Texierrek ez du lursailik ez gaztainadirik, eta beraz, inguruko laborariarekin tratuak egin ditu: “Gaztainadiak alokatu egiten ditut nik. Asko utzita zeuden, arras oihanduak, eta berriz gaztainadi bilakatzeko lan handia eskatu dute”. Sasiak moztea, ingurua garbitzea, arbolak kimatzea eta beste hainbat lan hartu ditu bere gain ekoizleak, gaztainak jasotzearen truke.

Iaz hasi zen gaztainetik eratorritako produktuak saltzen Texier, Gormutxa izenaren pean –“morkotsa” esan nahi du–. “Ez dut kantitate handietan saltzen, baina inguruko denda ttipietan eta Baigorriko merkatuan ibili naiz”, dio. Momentuz, bere kasa ari da, nahiz eta ez duten bazterten aurrera begira ekoizpena ere modu kolektiboan egiteko aukera: “Ardechen gaztaina transformatzeko sortutako CUMAK –nekazaritzako makineria erabiltzeko kooperatibak, Frantziako Estatuan oso zabalduak– eredutzat ditugu: eraikin eta tresneria kolektibizatuak antolatu dituzte, eta horrek aukera ematen du gazte bat laborantzan abiatzeko inbertsio txikia eginez”. ●

## bat Soziolinguistika aldizkaria



### BAT 127. EUSKAL SOZIOLINGUISTIKAN IKERKETA GAZTEA



**AITOR UNCETABARRENECHEA DEL RÍO >** Euskara Gernika-Lumoko Lehen Hezkuntzako ikasleen ahozko komunikazioan.

**MARTIN TXINTXURRETA ALBIZUA >** Hedabideak eta hizkuntza gutxituak: EITBren ekarpenak euskararen biziberritzean.

### harpidetu edo oparitu > URTEAN 40 euro

- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria etxean bertan.
- Hiru hilez behin, BAT aldizkaria PDFn eta EPUB-en jaso.

<https://bat.soziolinguistika.eus> / 943 592 556  
bat.aldizkaria@soziolinguistika.eus

**ODEI GUIRADO eta JONE RUA >** Aisialdia, hezkuntza ez-formala, bizipen positiboak eta euskara: Eman Hegoak udaleku irekien ebaluazio-ikerkuntza.

**IRATI LIZEAGA ELIZALDE >** Euskararen egoera Oarsoaldeko lan-munduan.

## MAHAI-JOKOA



## Hitzak jarioka

ITSASO ZUBIRIA ETXEBERRIA

**G**abonak. Familia bazkari eta afa-riak. Komunikabideek saltzen diguten familia ideal eta zoriontsuaren ideia faltsuaren atzean zenbat eztabaida eta haserre pizten ote dira urtero, enegarren plateraren eta turroiaren tartean? ARGIAk dakar konponbidea –edo azken diskusioa sortzeko beta emango duena–: *Jarioka* jolasa. Taldeka banatuta, hitz ezkutua asmatzeko mahai-joko berria.

Irudikatu une batez egoera: txikienak lotara eraman dituzuenean, ardo mordoxka edanda poteo eta afarian zehar, mihia pixka bat potolo, taldeen banaketa egin da eta koinatu ahoberoaren kontra tokatu zaizu. Talde indartsua duzu eta pentsatu duzu: “Oraintxe da unea Aitor zapaburu hori lotsakizun uzteko, beti dena dakielakoan...”. Osaba zaharra

duzu ondoko aulkian jada erdi lo, nahikoa lan egina baita egun osoan, ama eta izeba sukaldean (barkatu, baina zure etxean ere posibleena da oraindik lan horiek emakumeek egitea, nahiz eta beraien ere egun osoko lanak eginda izan) eta lehengusuak elkartu zarete lehiarako. Amona begira-begira duzue, jokoan sartu nahiko balu bezala, baina errele-ruak jada ez dira bere lagunik onena eta mahaiburu utzi duzue, borobiletik kanpora utzi gabe, baina gehiegi moles-tatzen ez duela. Asko dago jokoan.

Atera duzu lehen karta eta egokitu zaizkizu lau hitz. Hitz bakoitzak ondoan baditu beste launa, pistak ematerakoan erabili ezin izango direnak. Debekatuak. Jokoaren muina hori da, karta horietan agertu zaizkizun hitzak deskribatuz zure taldekideek asmatzea, baina hitz debe-

katuak erabili gabe. Erabiltzen duzun debekatutako hitz bakoitzeko puntuak galduko dituzu. Karta bateko hitzak zailak iruditzen bazaizkizu, paso egin eta beste karta bat hartzeko aukera duzu. Baina horrek ere puntuen galera dakar. Isuna.

Komodinan ere sartu dituzte jokoan. Balio desberdina duten kartak. Batzuk puntuak irabazten lagunduko dizute, beste batzuk, berriz, galtzera eraman. Eta elementu mitiko bat ere bai, harear-erlujua. Txanda bakoitzean ahalik eta hitz gehien asmatzeko bi minutu izango ditu talde bakoitzak.

Familian eolikoez edo greba feministaz hitz egitea arrisku handiko kirol bihurtu bazaizu, ez galdu aukera eta eskuratu etxeko batasuna mantenduko duen jolasa. ●

## Ongi etorri komunitatera!

Arazoi hauek eman dituzte egun hauetan ARGIAko kide egin diren lagun batzuek, komunikabide independente hau ekonomikoki babestu eta proiektua bultzatzeko. Ongi etorri denei komunitatera!



“Egiten duzuen lana beharrezkoa dela uste dudalako. Kazetaritza independentea behar dugu gizartea gehiago gaixotuko ez bada”.

**Oiartzundik Anderrek**


“Herri txiki kolaboratiboen mundu batean sinisten dudalako”.

**Ordiziatik Aitorrek**

“Irakurtzen dudalako. Aske eta zintzoa delako”.

**Antzuolatik José Antoniok**

# Gaztainak Israelgo estatuaren alde



NAGORE  
IRAZUSTABARRENA  
URANGA

**L**ondres, 1917ko azaroaren 2a. Arthur James Balfour Britainia Handiko kanpo harremanetarako idazkariak gutun bat idatzi zion Lionel Wakter Rothschild juduen komunitateko buruzagiari, hark Federazio Sionistari bidal ziezaion. *Balfour adierazpena* esan zitzaion idatzi horri, eta munduko potentzia batek juduek estatu bat osatzeko eskubidea zutela aitortzen zuen lehen keinutzat jotzen da; keinuak eragin berezia izan zuen gainera, garai hartan Palestina britainiar protektoratua baitzen. Lehenxeago Balfour Chai Weizmann zientzialariarekin bildu omen zen eta, zenbaiten ustetan, bilera horretan erein zen adierazpenaren hazia.

Lehen Mundu Gerran bolbora mota berri bat nagusitu zen: kordita. Potentzia handiagoa zuen, zehatzagoa zen eta ez zuen kerik eragiten. Baina azetona zen korditaren osagaietako bat, eta ekoizpen metodo zaharkituak medio, egur asko eta ahalegin asko xahutzen zen azetonan. Horregatik, garai hartan Britainia Handiko munizioen ministro zen Winston Churchillek Chaim Weizmann kimikari judu gaztearengana jo zuen, hark artoa hartzituz azetona lortzeko metodoa asmatua baitzuen.

Baina, gerra ekonomian, arto eskasia geroz eta larriagoa zen eta urpekar alemaniarrek arriskuan jartzen zuten etengabe AEBetatik zetorren arto hornidura. Orduan, Weizmannek bere metodo errazago eskura zitekeen produktu autoktono bati aplikatu zion: gaztainei.



KANAKO GERRA MUSEOA

Britainiarrek Lehen Mundu Gerran erabilitako korditazko jaurtigaia.

Gaztainak biltzeko lana eskolako haurrei enkargatu zieten; bestela esanda, haurrak esplotatu zituzten gaztaina hornidura bermatzeko. Baina gaztaina bilketak garraioak baino hobeto funtzionatzen zuen, eta tren bagoietan pilatutako gaztaina tonak usteltzen hasi ziren. Kexa horiek parlamentura iritsi ziren, baita haurren lanen lepo aberasten ari zirenen aurkakoak ere. Baina Churchillek berehala isilarazi zituen, helburuak bitartekoak justifikatzen zituelako eta helburua gerra irabazten lagunduko zuten edozer gauza egitea zelako.

Hala, azetona eta, beraz, kordita ekoizteko funtsezkoa izan zen Weizmanen lana. Esker ona adierazteko Balfour idazkaria zientzialariarekin bildu omen zen eta bere laguntzaren ordainetan nahi zuena eskatu zezakeela esan zion. Weizmannek judutar estatu bat sortzeko eskatu omen zion.

Bilera horren frogarik ez dago eta, jakina, beste faktore askok eragina izan zuten Israelgo estatuaren sorreran. Baina istorio hau mendebaldeko potentziek Israelgo estatuarekiko izan zuten eta duten jarrera interesatuaren erakusle da. ●



## Esfingea haizeak zizelkatu zuen

New Yorkeko Unibertsitateko ikerlari talde batek esperimendu bat egin berri du, Gizako esfingearen materialak eta eraiki zuten garaiko baldintza klimatikoak imitatuz.

Eta esperimentuaren ondorioa izan da, gizakiak baino lehenago, haizea bera izan zela esfingeari forma ematen

hasi zena. Higadurak modu naturalean egindakoa aprobeztatu zuten gero egiptoarrek, eta esfingeari itxura zehatza emateko lanak abiatu zituzten. Beraz, gaur egun higadura monumentu hori hondatzen ari dela diote adituek, baina, era berean, jatorrizko itxura berreskuratzen ari da nolabait. ●

# “ ”

## *Dekadentzian dagoen aristokrazia argentinarraz asko hausnartu dut filmean*

Martín Benchimol

Donostiako Zinemaldiaren azken edizioan Horizontes Latinos saileko irabazlea izan den *El Castillo* (“Gaztelua”) filma zuzendu du Martín Benchimolek (Buenos Aires, Argentina, 1985). Pelikulak protagonista ditu haien burua antzezten duten Justina eta Alexia ama-alabak, zeinak Argentinako landa-eremuan galdutako gaztelu liluragarri baten jabe

diren. Oinordetzan jasotako gazteluaren egoerak, baina, bizimodu latza inposatzen die protagonistei: ordaindu beharreko fakturak, sabaiko zuloak... eta ama eta alabaren arteko harremanak dir-dir egiten du. Fikzioaren eta errealtatearen artean jauzika, klasez igotzearen aukeraz eta bi protagonisten lotura estuaz hausnartzen du filmak.

 IXONE SANTAMARIA  DANI BLANCO / ARGIA CC BY SA

### **Nahitaezkoa dirudi galdera honekin hastea: pelikulak zenbat du errealtatetik eta zenbat fikziotik?**

Zaila da esaten. Nire aurreko dokumentala grabatzen ari nintzela ezagutu nituen Justina eta Alexia, lan horretarako lokalizazioak bilatzen ari nintzela. Justina ikusi nuen gazteluaren inguruan lanean, eta berari galdetu nion ea nor zen eraikinaren jabea. “Zure begien aurrean duzu”, erantzun zidan. Horregatik esan ohi dut ez nuela espero film hau egiterik. Beraz, errealtatetik asko du pelikulak. Hasieran dokumentala izan behar zuen, baina behin grabatzen hasita behaketa lana ez zela nahikoa iruditu zitzaidan. Zentzu hertsian, hortaz, dokumentaletik pixka bat urrundu eta fikzioan sakondu genuen.

Hala ere, eguneroko eszenak, elkarrekin bizitako pasadizoen berregiteak eta imajina genitzakeen etorkizuneko agertokiak grabatu ditugu. Beraz, zaila da esaten zein kategorian sar daitekeen filma. Protagonisten bizitzen errepresentazioa da. Haien burua antzezten dute.

### **Autofikzioaren jolas horretan murgilduta, protagonistek jarri al zizuten inolako marra gorririk?**

Justinak esaten zidan: “Erakutsi nahi duzuna, baina ez nazazu grabatu pipa erretzen”.

### **Zigarroak, aldiz, bai.**

Zigarroak bai, piparik ez. Orokorrean, grabaketa prozesua eroso eraman zu-

ten, gustura zeuden kameraren aurrean, eta atsegin dute filmean agertzen diren modua. Piparen kontuaz gain, grabatu nahi izan ez zuten beste eszena bat datorkit burura, behi baten heriotzarekin loturikoa. Egoera zinez gogorra izan zen haientzat, Justinak sakonki maite baititu animaliak, eta hori ez zuten kameraren aurrean antzeztu nahi izan.

### **Kasualitatez ezagutu zenituen Justina eta Alexia. Nola eraiki eta sakondu zen harremana, zu zeu beraien intimitatearen parte izateraino?**

Lehen urteetan ez zegoen kamerarik. Elkar ezagutzen joan ginen naturalki, eta urteak pasa ziren grabatzen hasi arte. Eraikitako harreman horren ja-

rraipena baino ez zen izan grabaketa, eta simplea izan zen, beraiek egiten zuten beraien bizitzaren errepresentazioa, betiere haien nahien arabera, eroso zeuden kontuetan.

Hortxe ikusten dut organikoa denaren eta ez denaren arteko muga. Dokumental hitzaren definizioa bilatzen baduzu adibidez Wikipedian, “errealitatea irudikatzen duen filma” irakurriko duzu.

Zentzu horretan, nire filmak ez du erreallitatea irudikatze asmorik, ezinezkoa zait. Protagonisten arteko lotura irudikatze borondatea daukat.

### **Hasieratik argi zeneukan haien bizitzak fikzio bihurtu nahi zenituela?**

Hasieratik argi ikusi nuen haien benetako istorioek narratiba oso indartsua

eraikitzen dutela, baina narratiba indartsu horiek ez ziren beti haien kabuz agertzen kamerak piztutakoan, eta hori hauspotzen zuen testuingurua sortu behar genuen. Hor hasi ginen fikziora hurbiltzen, ariketa horrek eskatzen zuelako fikzioaren kadentzia narratiboa: aktoak, sekuentziak, pertsonaien garapena... Fikzio doinu hori gustuko nuen, horregatik animatu ginen musika gehitzera.

### **Musika amesgarri horrek ematen dio maitasun-ipuiri kutsua.**

Deialdietara aurkezten ginen bakoitzean, edo filmari buruzko testu bat prestatu behar genuenetan, “fabula” edo “maitasun-ipuiri” bezala deskribatzen genuen *El Castillo*. Egun batean neure buruari esan nion: “Tira, egin dezagun, jar diezaiogun maitasun-ipuinetako musika, eta goazen aurrera”. Ondo baino hobeto funtzionatu du.

Magikoa denaren eta aukera errealean arteko tentsioan, musikak elikatzen du lehena. Tentsio horretan, alde batetik gazteluaren jabetza dugu, klase-igoera edo mirarizko salbazioa dirudiena. Baina erreallitatea daukagu beste aldean, oso bestelakoa dena. Filmak ez dio erreparatzen ekonomikoki gora egiteko aukera hutsari, magikoa litzatekeen horri, baizik eta bere horretan dirauen klase-atxikimenduari. Izan ere, filmaren hasieratik jabe posizioan aurkezten zaigu Justina, eta are gehiago etxea sinbolikoki bereganatzen doanean. Dena den, horrek ez du erreallitatean bere egoera aldatzen.

### **Gazteluak eta bere egoera kaskarrak islatzen dute dekadentzian dagoen aristokrazia argentinarraren egoera. Hondamen horren ondorioak kudeatu behar dituzte Justinak eta Alexiak. Oinordetzan jasotako gaztelua, ez al da pozoitutako oparia?**

Filmaren sorkuntza prozesuan asko hausnartu dut horri buruz. Filmaren funtsa dira klase sistemaren zentzugabekeria eta kontraesana, baita oinordetza jaiotzetik nola definitzen gaituen ere. Argi dago Justinaren kasuan: sei urterekin hasi zen neskame lanean, eta urte luzez ez du inoiz dirurik jaso. Film honekin jaso duen dirua izan da bere lehenengo soldata.

Zentzu horretan, alde batetik, funtsean ekonomikoa den auzia dugu. Kontuak ateraz gero, norbaitek esan dezake:



“Saldu dezala etxea eta salmentaren diruarekin eros dezala merkeago zerbait”. Baina filma alderdi matematiko horretatik haratago doa. Gazteluaren jabetza ez da kontu ekonomiko hutsa. Hain zuzen ere, hori da niretzat erantzun beharreko galdera nagusia, klase-kontzientziaren eraikuntzaren nolakotasuna. Ez da nahikoa zerutik erori dela dirudien gaztelu bat oinordetzan jasotzea, horrek ez du ezer aldatzen. Etxearen jabetza sinbolikoki borrokatzea da garrantzitsua.

“ ”

***Gazteluaren jabetza ez da kontu ekonomiko hutsa; klase-kontzientzia eraikuntzaren nolakotasuna dago jomugan***

**Filmaren trama nagusia ama-alaben harremana da. Alabaina, urtez urte ondutako harremanak utzitako pasadizoetatik eta autofikzioaren hainbat aukeretatik abiatuta, hainbat norabide ireki zenitzakeen argutuan. Nola eta zer momentuan zehazten da, aukera guztien artean, zein izango den trama nagusia?**

Lehenik eta behin, film honen zedarria orainaldia izatea nahi nuen. Herentzia batek zeharkatzen du filma, eta, berez, lehenaldiari egiten dio erreferentzia oinordetzak. Baina nik ez nuen nahi filmak atzera begira zezan; nire asmoa zen bi emakume protagonisten orainaldian zentratzea. Horrek informazio asko ezabatzea edo laburtzea behartu ninduen. Espozituki kontatzen ez zena ere uler zitekeela uste nuen. Horrexegatik, lehenaldiaz oso gutxi esaten da. Justinak gaztelua oinordetzan jaso zuela, gehiagorik ez.

Termino dramatikoetan, Justina eta Alexiaren harremanean zegoen dena. Hor jarri nuen fokua, eta kontrakoa egiten saiatu nintzen, tramari gauzak gehitzen jarraitu beharrean. Bien arteko loturak eta horren garapenak eskatzen zuena baino ez nuen gehitzen, izan fami-





Pelikulako fotograma bat.

liaren bisita, Justinaren bikotekideari aipamena edo Alexiaren lagunak agertzea.

**Fikziora egindako jauziaz gain, bakarrik zuzendu duzun lehen filma ere bada. Erronka handia izan da?**

Oso interesgarria izan da. Aurreko filmetan zuzendari lanean kide izan dut Pablo Aparo. Lagunak gara nerabezarotik, rock talde bat genuen eta zinemagintza ere elkarrekin ikasi genuen. Lehenbiziko lana elkarrekin grabatuta, horrek hurrengo ekarri zuen, eta hurrengo... Orain bakoitza bere lanekin dabil, baina batera jarraitzen dugu, ekoiztetxea daukagu elkarrekin.

Hala ere, zinema zuzendaritza apeta-tsua izan ohi da, eta oso pertsonala. Film honekin modu oparoan sakondu ahal izan dut alderdi pertsonalago horretan. Gainera, zinema nolabaiteko enpatia ari-keta ere bada, eta hori zeharo pertsonala da, norbera nola harremantzen den pertsonaiekin.

**Elkarrizketa egiten ari garen bezperan, Argentinako zinema munduko hainbat pertsona bildu zarete Kurasaalean, zuen herrialdeko hauteskondeei begira hautagai erreakzionarioen promesak salatzeke: besteen artean, Kultura**

“ ”

***Zinemak jaso dezakeen zigor ekonomikoaz harago, [hautagai neofaxisten] diskurtsoaren zilegitasuna dago jokoan***

**Ministerioa edo INCAA Zinema Institutua ixtea. Horrelako mehatxuei zein joera faxisten normalizazioari aurre egiteko, zein da, zure ustez, zinemaren munduak hartu beharreko jarrera?**

Esan duzun moduan, horrelako hautagai neofaxista eta homofoboek irabaziz gero, mehatxupearan dago zinema argentinarra... Baina ez hori bakarrik, beste hainbat eskubide ere arriskuan egongo dira. Zinemak jaso dezakeen zigor ekonomikoaz harago, jokoan dagoena diskurtso baten zilegitasuna da. Haien diskurtsoak diosku “negozio borobil eta handia” izan daitekeen hori baino ez dugula zaindu behar. Abiapuntua guztiz

arriskutsua da. Izan ere, berebiziko garrantzia du ikuspuntu komertzialetik haratago mugitzen diren filmak existitzea, eta sorkuntza geratzen da jomugan.

Beraz, kontua ez da bakarrik hautagai horrek irabaztea edo ez, baizik eta hartu-eman komertziala harremantzeko bide bakarra dela defendatzen duen ideia borrokatzea. Hori salatu behar dugula uste dut, baita ideia hori ezeztatzen duten filmak sortu ere. Harremantzeko beste modu bat posible dela erakusten duten filmak sortzea da gure egitekoa.

**Orain arte, besteak beste, Berlinale, Lima eta Hong Kongeko Zinema Jaialdietan aurkeztu da *El Castillo* filma. Azken horretan zuzendari onenaren saria irabazi zenuen. Nolakoa izaten ari da publikoaren harrera eta nolakoa zuen esperientzia?**

Egia esan, maleta nahikotxorekin gabilta bueltaka. AEBetako Candem-etik gatzoz, orain Donostian gaude, gero Biarritz, ondoren Islandia, Zurich... Ederra izaten ari da bira, eta harrigarria da gure istorioak uzten duen oihartzuna antzematea. Izan ere, apur bat arrarora gerta daiteke istorioa, baina jendea maitemintzen ari da bi protagonisten arteko loturaz. ●



LIBURUA

# Zezenaren lasaitua



## PANTXO ZEZENA

PELLO AÑORGA

ILUSTRAZIOAK:

JOKIN MITXELENA

DENONARTEAN, IRUÑEA, 2023

**XABIER ETXANIZ ERLE**

**P**ello Añorgak eta Jokin Mitxelenak ibilbide luzea eta emankorra dute euskarazko haur liburugintzan. 40 urtetik gorako kolaborazio horren beste emaitza bat dugu *Pantxo zezena* albuma.

Liburuko azaletik bertatik ikus dezakegu Pantxo adar luzeak dituen zezen indartsua dela, baina, aldi berean, Pantxo baserrian lasai bizi den animalia dugu: "Pantxo zezena baserrian bizi zen beste animaliekin batera: antzarrekin, ardiekin, zerriekin, astoekin eta behiekin. Txikia izan arren, adarrak zituen handiak, eta orroka ibiltzen zen larre berdean, gustura". Pantxoren bizi lasaia, baina, erabat aldatzen da pañeludunak agertu eta kamioi batean sartzen dutenean herriko festetan korrikalarien atzetik ibil zedin. Eta hain ondo egin

zuen bere lana Pantxok, egun bakarrean ez, baizik eta egunero atera nahi izan zutela zezen plazan korrika egitera. Harrik eta Pantxok planto egin arte.

Indarrez behartu zuten orduan eta Pantxok plazatik ihes egin zuen, banderilla bat bizkarrean sarturik, baserri aldera bere adiskideen laguntzari esker berriro libre eta larrean gustura egon arte.


Ferdinando zezenaren aire bat hartu diot nik Pantxori; liburu hura (Munro Leaf eta Robert Lawsonen artean egina) debekatuta egon zen herrialde askotan (Francoren Espainian esaterako; edo Hitlerren Alemanian erretzeko agindu zuten) indarkeriaren kontrako mezua zabaltzen omen zuelako; oraingo Pantxo honek ez du jendea adarkatu

nahi, ez du zilipurdika bota nahi, nekatu egin da horrela aritzeaz; eta bere askatasuna, lehengo bizitza, berreskuratu nahi du.

Testu labur eta aberatsa, istorioa kontatzeko (irakurtzeko) oso aproposa eskaini digu Añorgak. Mitxelenak, berriz, irudi indartsuak eta zezenari garrantzirik handiena eskainita, ederki lortzen du kontakizunaren indarra eta mezua islatzea.

Alde horretatik, beraz, esperientzia atsegina izango du liburu honetara barneratzen den irakurleak; atsegina edo sentsazio eta sentimenduen gorabeheratsua, baina horrez guztiaz gain plazerezkoa testu eta irudien aldetik eta, Pantxok bezala, amaieran irribarre batekin lasaitua. ●





MUSIKA

# Basoa, gaztetetasuna eta askatasuna



@JIRAZOKI



## BAS(H)OAN II BAS(H)OAN ELKAR, 2023

### XALBA RAMIREZ

**G**utxik ezagutuko dute Robbie Basho gurean. Estatubatuar gitarjoleak, asiar doinuak bere egin eta Matsuo Basho poeta japoniarraren abizena hartu zuen. Poeta haren aipuak jaso zituen Joxean Artzek ere, munduko erlijioak ikertzen zituela.

Artzeren kide izan zen Beñat Achiary, eta, beste bide batetik, duela sei urte, Joseba Irazoki gitarjoleak proposatu zion Robbie Bashoaren omenezko disko bat egitea. Aurten, berriz ere elkartu, eta konposizio propioetatik abiatuta, disko askoz ere borobilagoa osatu dute.

Eta zer egin duten? Munduan eta garaietan zehar bidaia izugarria. Kanta luzeak –batzuk besteak baino exijienteagoak–, unibertso bat osatu baino, konstelazio bat dira: bakoitzarentzat itsasargi gisa erabiltzeko mo-

dukua. Baina ez da mapa bat, libreegia delako.

Post rocka, post folka, jazz, tradizioa... zer da hau? Baina tira, zer ari naiz galdetzen! Achiary aita semeak –Julen da baterian–, Joseba Irazoki, eta orain batu zaien Oihan Oliarj-Ines baxujole xiberutarra –bai, joan den hamarkadako euskal disko garrantzitsuenetakoa den *Oihaneko Zühainetan*-en egilea–. Ametsetako ekipo askea, nola sartu ildo bakarrean!

Munduko abangoardiekin konektatuta egon zen euskal abangoardia 1970eko hamarkadan, baina denborarekin gure lekua galtzen joan gara. Alberto Lizarralde musikariak esaten du gure begirada faltagatik izan dela, pentsatzen genuelako euskarazkoa soilik euskaldunontzako zela.

Eta ez. Ez balego euskarafobiarik gurean, Bas(h) Joan taldeak Kursala bateko luke, eta Bartzelonan ez dakit zer sala, eta Parisen antzoki hau, eta New Yorken bestea. Munduari konektatuta egoteko lan harrigarria delako *Bas(h) Joan II* hau. Eta ez bakarrik hiri kosmopolitan. Tradizioa ulertzen duen munduko kultura guztiak ulertzeko moduko hizkuntzaren jabe baita lan hau.

Ez dakit justizia kontua den. Baina bidegabea iruditzen zait musikari hauen errekonozimendu falta... 75 urte ditu Achiaryk, eta egungo euskal eszenako edozein gazte baino freskotasan handiagoa erakusten du lan honetan. Gazte eta aske mantendu dezagun gure garaiko ahots biziena. Basoaren hatsek askoz gehiago esaten digutelako iraganaz, eta etorkizunaz. ●



# Teilatuperako kide bila, 'maitia'

✍ IÑIGO SATRUSTEGI 📺 MENDI URRUZUNO, KULTURAZ

**B**ilatzen dugu: teilatupe honetan elkarbizitza egiteko norbait, *maitia*. Etxe bat, zurea izan zitekeena. Etxeko atea beti zabalik, zurean ere egin zenezakeen bezalaxe. Etxe arruntetako elementuak: sofa, manta, lanpara, plastikozko loreak, mahaia, bizikleta estatikoa... Zureak izan daitezkeenak. Bikote bat, ohikoa izan zitekeena. Antzik ez izatean soilik bat egiten duten horietako bat. Bikote bat al da? Kax-kax. Lehen bisitaria.

Onartzen ditugu: zaldien modura ibiltzen direnak, txiste oso txarrak egiten dituztenak, idazle klasikoaren konplexua dutenak, bollera ez monogamoak, monogamiaren erruz koadrilarik gabe geratu direnak, dinosauroak, *sitcom*-tako barre enlatatuen pare irri egiten dutenak, galdera existentzialak egiten dituzten lagunak, bizikleta estatikoan

ibiltzea onartzen dutenak, eta beste pertsonaia, objektu eta une surrealista askoz gehiago ere bai, *maitia*.

Teilatu baten azpian egunero gertatu daitezkeen (edo ez) gertaeren sekuentzia luze bat. Tarteka oso barrura eramaten zaituzten eszenak. Zergatik galdetzailearekin hasten diren galdera-kate luze bat. Dantza motelak. *Txunda-txunda* dantzatzeko momentuak. Gorputz biluziak, eta zetazko jantzi orteroak. Croma urdinaren aurrean ikusezin den izaki bihurria. Maitte, Javier eta Marina. Edurne gaurkoan ez. Kax-kax. Beste bisitari bat.

Eskaintzen dugu: zure familia, lagunartea, harreman sexu-afektiboak eta bizikidetza zalantzan jarriko duen saio zoro bat, *maitia*.

*Everything is gonna be alright!* Baina dena ez dago ongi. Familia teilatu

## ZEOZERTAN DABIL BAINA EZ DAKIT ZERTAN

**KONPAINIA:** Metrokoadroka sormen laborategia.

**NOIZ:** Urriaren 27an.

**NON:** Nafarroako Antzerki Eskolan (Iruñea).

beraren azpian bizi da. Edo ez. Teilatu beraren azpian zenbat indarkeria eta jarrera onartzen ditugun. Teilatu azpi horretatik ihes egitea familiari traizio egitea da. Familia lotura da. Familia ez da aukeratzen. Familia tokatzen zaizu. Familia deitzen ahal diozu zure lagunei, baina ez da familia izango. Familia da eta puntu.

Zergatik jarri duzu iragarki bat orduan, *maitia*?

Alfonbra azpian arazoak eroso gordetzen segitzen dugulako *maitia*. Bizikleta estatikoa bezain estatikoa delako zurekin bizitzea, *maitia*. Mahaiaren gainera igo, eta lauzpabost kontu oihukatzekeo ditudalako, *maitia*. Bizitza haizea galtzen ari den sofan jarrita ikusten pasatzen dugulako, ezer ere egin gabe, *maitia*. Txantreakoak garelako, *maitia*. ●



# Hitz gezidunak

MALETA ...ERE, BATIK BAT		BEHARREAN MODU ATZIZKIA		DUDARIK GABE			APUR, DEUS BIBA ESANEZ	ERDU, ETOR ZAITEZ PERTSO- NAIAREN ABIZENA	EGIPTOKO ERREGE BUREZUR
LOKATZ, BASA NAIZEN HAU							KATU AR ADINA, BEZAINBAT		
		URREAREN IKURRA AUZILARI			OSATU ADITZAREN ERROA AMAMA	NAFARROAKO HERRIA SOKA PUSKA MOTZA			
URRADURA, URRATUA UNEKO EGUNEAN							NAFARROAKO MENDIZERRA ZERGATIA, ZIOA		
				GEHIENEKO PERTSO- NAIAREN IZENA				OMEN TREBE- TASUNEZ, ABILEZIAZ	
DEITURAK	ITSASTEKO ZINTA GARDENA ZALDIAREN EME HELDU				NEHOLAZ POZKORRA, ALEGERA				DEITORE, AUHEN
							DEBEKIA, GAITZESPENA JARAMON		
EZEZTAPEN OHEAN ETZAN, OHERATU		XALOTASU- NEZ DUT (ALDE- RANTZIZ)						INGURU NEKAZARIA- REN LANABES	
				DANBOR ZAPAL KAKA					ENERGIA LANDA, SALBU
POESIA PREDIKUA EGIN					ELKARREN KONTRA BULTZAKA TONA				
							ANTZA, FORMA		

## Sudokua

BETE ITZAZU GELAXKAK 1ETIK 9RAKO ZENBAKIAK IDATZIZ, ZUTABE, LERRO ETA 3X3 KOADRO BAKOITZEAN ERREPIKATU GABE.

	3		4	7		2		
4		6	5	8	1	3		
	9		6	3	2			
5	8	9	2			6		3
					8	1	7	2
				6	4			9
		7		9				
8						9	3	
	4			2			8	5

## 5x5

ZEHARRETARA ETA GOITIK BEHERA, HITZ BERA.

- Lorea.
- Landare jatorria duen material beltz.
- Aihena.
- Metal gris harikor.
- Ebakitako gari azken den sorta.


## EBAZPENAK

- LILIA
- IKATZ
- LAIRA
- ITRIO
- AZAOA

S	8	7	9	2	1	3	4	6
8	1	2	7	4	5	9	3	6
6	5	7	8	9	3	4	2	1
2	7	1	3	6	4	8	5	9
3	6	4	9	5	8	1	7	2
5	8	9	2	1	7	6	4	3
7	9	8	6	3	2	5	1	4
4	2	6	5	8	1	3	9	7
1	3	5	4	7	9	6	2	8

P	R	E	D	I	K	I	D	E	R	E
N	R	O	S	I	K	R	E	R	O	
E	L	A	V	A	T	U	V	A	H	O
I	R	I	K	I	K	O	A	L	X	Z
V	A	B	U	A	K	N	A	E	Z	I
Z	L	A	O	N	I	O	E	L	O	Z
E	I	O	M	O	I	X	V	M	A	V
O	K	O	Z	I	V	S	T	V	R	Z
A	S	A	D	O	L	O	U	A	I	N
V	A	K	A							
V	A	K	A							
V	A	K	A							
F	Z	M								

# Antxon Jauregi Vidal

KANTINERA



## ETA KITO

Goi-mailako ileapaintzaile zikloa ikasten ari da Antxon Zarautzen. Ile luzea du eta hura laztantzen ari dela erantzun ditu galderak. Ahoan bilorik gabe, aske eta libre. Estereotipo, arau eta inposaketetatik libre bizi den mutil batekin egin dut topo. Antxon ez da lotsatzen gizona dela esaten, zakila duela esaten behin eta berriz, eta hala izan eta sentituz janzten dituela belarririk handiak, makillatzen dituela begiak eta margotzen dituela ezpainak. Ez dakit urrats horiek ematen inoiz sufritu ote duen ala ez, baina pertsona indartsu batekin egin dut topo. Nahiko nuke bera bezain libre eta dotore bizi, inposaketa eta presio sozialetik at.

## “Ni ez naiz lotsatzen irundarra naizela esateaz”

2023ko ekainaren 30a, bere “bizitzako egunik zoriontsuena” izan dela dio Antxon Jauregi Vidalek. 19 urte ditu irundarrak eta txikitako amets bat bete du herriko jaietan, Alarde parekidean kantineira desfilatu baitu, protokoloak agintzen duen ezpain gorri, gona luze, bota zuri altu eta abarrekin. Jauregik lortu du tradizioen eraldaketaren parte izatea, norberak nahi duen gisan, nahi duen tokian, libreki parte hartzea, “edozein herriko jaietan”.

 AITZIBER ZAPIRAIN ETXANIZ  DANI BLANCO / ARGIA CC BY-SA

### Antxon, argi gera bedi zu gizon zis bat zarela.

Bai, ni gizona naiz. Zakila dut eta gizon sentitzen naiz. Bat egiten dut jaiotzean biologikoki ezarri zaidan generoarekin. Ez dago gaizki ulertzerik, askatasun kontua da. Libreki, nire gizon izatetik makillatzen naiz. Gustuko dudalako. Behin eta berriz errepikatu dut mezu hori azken hilabeteetan. Ez dut duda izpirik ukateko mezurik eman, argiki hitz egin dut hasieratik, eta hala ere, denetarik esan dute nire inguruan, maiatzaren 12an San Migel auzoko konpainiako kantineira izendatu nindutenetik.

### Hilabete batzuk igaro dira, zer moduz zaude?

Ongi nago, oso pozik. Mezuak jasotzen ditut oraindik, baikorrak gehienak. Oso ongi pasa nuen eta ez dut egun hura inoiz ahaztuko. Nire bizitzako egunik zoriontsuena izan zen. Txikia nintzela, balkoira atera eta handitan kantineira izan nahi nuela esaten nion amari. Ilusio hori nuen

ume nintzenetik. Garai hartan, gainera, alarde tradizionala ikustera joaten ginen etxeokak. 11 urte ukan arte, gutxi gorabehera, ez nintzen gatazkaz kontziente izan. 13 urterekin ordea, atera egin nahi nuen. Lagun-talde guztia alarde parekidearen aldekoa nuen eta ni ere berehala posizionatu nintzen, jaietan emakumeen parte-hartzearen alde. Etxean, babestu egin ninduten. Kantineira izan aurretik, txilibitua jotzen ateratzen nintzen. Pandemia ostean, 2022. urtean, orkatila bihurritu nuen eta ezin izan nuen atera. Beraz, aurtengoa nire urtea izan da.

### Asko pentsatu al zenuen urratsa emanurretik?

Ez, oso argi nuen. Haurtzaroko ametsa betetzeko aukera ikusi nuen, ez nuen zalantzarik egin. San Migelekoa, konpainia sortu berria da alarde parekidean. Izendatu aurretik, bertako kapitainarekin hitz egiteko aukera izan nuen. Gustura sentitu nintzen harekin eta etxeok ere babesten ninduten. Ez zuten ia



"Agian kasualitatea izan da, baina niri ez dit inork ezezkorik eman kantinera ateratzeko. Aurkeztu naizen lehen urtea izan da eta oztopoak orde, laguntza handia jaso dut".

sinesten, baina bakean uztearren edo, baietz esan zidan amak. Maiatzaren 12an eman zidan berria konpainiak, lore sorta erraldoi batekin, lagunekin zerbait hartzen ari nintzela. Amari bideo-dei bat egin nion berehala eta txantxa ote zen galdetu zidan. Oso momentu berezia izan zen.

#### **Etxean ez ezik, herrian eta prentsan ere eman duzu zer esana.**

Bai, ez dakit zenbat elkarrizketa eman ditudan guztira. Herriko prentsez gain, kanpoko ere etorri da nigana eta nik baietz esan diet denei. Alardearentzat eta Irunentzat egokia iruditzen zitzaidan ahalik eta oihartzun handiena ematea. Horrez gainera, ni zer naizen eta nola sentitzen naizen, gizon zis bat naizela argi uzteko modua zen.

#### **Bada ulertu ez duenik...**

Ulertu ez duenak nahi ez duelako da. Hamaika titular atera dira gizona naizela esanez, hala ez balitz, zuzenketak eskatuko nituen, zalantzarik gabe. Denetarik esan dute nire inguruan. Transexuala naizela, ez naizela nahikoa gizon, gizon

bezala jantzi eta desfilatzeko... Zer nahi. Badakit batzuetan arraroa izan naitekeela batzuentzat. Ohituta nago begiradak jasotzen. Oraingo honetan ordea, ezberdina izan da. Asko izan dira hurbiltzera ausartu ez, baina baikorki begiratu nautenak, pozez eta animoak emanez bezala. Eta beste asko, etorri egin zaizkit eta zuzenean zoriondu naute.

#### **Bati baino gehiagori atea zabaldu diozula ohartzen zara? Izan kantinera ateratzeko edo haratago, libre eta nahi bezala bizitzeko.**

Ni ez naiz horretaz ohartzen. Hala bada, poztan naiz, ikaragarri. Neure burua maitatzen eta naizena izaten irakatsi didate etxean. Beraz, ez naiz inoiz preso edo baldintzatua sentitu nahi bezala jantzi eta makillatzeko. Horrez gainera, agian kasualitatea izan da, baina niri ez dit inork ezezkorik eman kantinera ateratzeko. Aurkeztu naizen lehen urtea izan da, eta oztopoen orde, laguntza handia jaso dut. Nire adineko asko dago alarde parekidearen aurka, eta ez dut ulertzen. Lotsa eta pena ematen dit. Beren etxean nagusitzen den

jarrera hartzen dute, bi aldiz pentsatu gabe. Adineko batek bere ikusmoldea aldatzea zaila dela ulertu dezaket, gure adinekoen kasua, ordea, onartezina da.

#### **Diotenez, bertakoek baino ulertu ezin duzuen zerbait da.**

Agian, ez dakit. Oso zaila da hemengo ez den bati gatazka azaltzea. Bereziki alarde parekidearen aldekoa izanik, gatazka besteek sortzen baitute, ez guk. Lotsatu egin beharko lukete daukaten jarreraz, ematen duten irudiaz. Ni ez naiz lotsatzen irundarra naizela esateaz, batzuek ezin dute gauza bera esan, hiriaren izena zikintzen ari dira bi hamar-kada luzez.

#### **2024. urtean zer?**

Desfilatzen aterako naiz. Nik txilibitua-rekin nahi izaten dut, baina aurtan eskopetarekin atera dira etxeakoak, lehen aldiz gainera. Ekipamendu dena erosi dute, beraz hala nahi badute, haiekin aterako naiz. Lagun zein familia, ongi pasatzea da helburua, eta aurtan nigatik egin dutena eskertzeko modu bat ere izango da haiekin batera desfilatzea. ●

# Borja Mani eta misterioaren naziak

 GORKA BEREZIARTUA MITXELENA

**U**dazken honetako plan gehienak manifestazioak izango direla idatzi nuen, baina joder, ez nintzen *horrelako* manifestazioez ari. Badaezpada argitzea hobe. Izan ere, a ze folloia Puigdemontek Sanchezi Espainiako Gobernu osatzeko PIN zenbakia txibatu dionetik: Madrilgo gauetan *hit* frankista guztiak hasi dira entzuten berriz, baina Cayetano Meloso ez dago hunkituta horiek abestu dituelako, negar-gasa sartu zaio begian, besterik ez; eta Borja Manik ikasi du poliziak jo egiten duela Espainia putadefendatzen bakarrik ari bazara ere; eta Carmenek berriz, orain badaki atxilotzen zaituzteanean txukelak ez dizula uzten fulatik korrika alde egiten, nahiz eta zuk esplikatutxera joan behar duzula seme-alabekin egotera. O sea, traumatxoren bat geratuko da esperientzia superfuerte horien ondoren.

Inportantea izan da –kopuru aldetik, esan nahi dut– azken egunetako mobilizazio friki-fatxak erakutsi digun muntroen galeria. Horietako batzuk meseta iberiarreko espezie autoktonoak dira; besteren bat berriz, 2020az geroztik edonon ugaritu den konspirafaunaren parte: Ferraz kalean dagoen manifestari batengana hurbildu da telebista-kate ultraeskuindarra, eskatu dio esplikatze-ko zer esan nahi duen eskuetan daukan kartelak –“Espainia esnatu. Plandemia. Iruzur klimatikoa. Amnistia. Kontrola!!!”–, eta minutu erdiko paranoia-salda hau erregistratu du bideo-kamerak: “Gizon honek [Perroxanxek, alegia] kaka ederki nahastu du boterera iritsi denetik, diktadore bat da. Plandemiarekin hasi zen, etxean giltzapetu gintuen, hori egitea konstituzionala ez zen arren; denak txertatu gaitu eta jende pila bat hil da, eta jendeak gaixotzen jarraitzen du,



eta txertatzen jarraitzen dute; iruzur klimatikoa ere beraien interesen arabera erabiltzen dute, hori ere herritarrrak kontrolatzeko; eta orain amnistia tokatzen zaigu, erabateko diktadura. Eta herritarren kontrola elite masonikoen aldetik. Horietako bat erregea da, horregatik ez da arazotan sartzen”.

Txapelalbal perfil horretako jendea da ultraeskuin espainiarraren azaroko udaberri honek utzi duen berrikuntza nagusia, argi geratu delako beste geruza bat erantsi zaiola ohiko frankismo soziologikoari, bere pijo, falangista eta otoizlari mariano guztiez gain. Baten batek “misterioaren nazi” izenez bataiatu ditu elementu berriok eta, obsesio bat gora, obsesio bat behera, paraje hauetan ere bolada batean asko ugaritu ziren argudioak erraz ezagutuko zituen irakurleak aurreko paragrafoko adierazpenetan. Testuingurua dugu alde, eta eskerrak: eusko labeldun eskuin mutur koskor samar bat ez denez hemen inoiz mamitu, eta aberriak orain-

dik gehiago tiratzen duenez telefonora iritsi zaizun azken teoriak baino, nekez ikusiko duzu euskal esnaturik estatu-kolpearen aurreko zirriak diruditen mobilizazio horietan –baten bat agertu den arren, dena esan behar baita–.

Edonola ere, eskuin espainiarraren kolore-kolore eta gustu guztiak ezagutzeko baliagarriak izateaz aparte, manifestazio horiek, bere horretan, ez dute zuzenean ezer lortzeko asmorik, nik uste. Beste funtzio bat dute; eta horregatik dira, hain justu, ezkerreko edozein mobilizazio-ziklorekin konparatuz gero kontzeptualki oso desberdinak. Cayetanoak kalera ateratzen direnean, bengan borrokatzera baino gehiago ateratzen baitira iritzi-giro bat simulatzera, ea beren *performance*-arekin sortutako errealitate birtual hori alibi gisa erabilita, epaileren batek, txapelokerren batek, militarren batek –edo denek batera– egoera bideratzen duten. Egin dezagun barre, baina ez gehiegi ere. ●



Prezioa **32 €**

Bidalketa gastuak **5€**.  
Bidalketa doan **40€**-tik gorako erosketetan.  
**BIZUM** bidez ordaindu daiteke.

**azoka.argia.eus** (+34) **943 37 15 45**

**Abendutik aurrera**

bi astelehenean behin  
ARGIA eta audio  
plataforma guztietan

Oraingoan bertsoa  
albora utzita...  
beno, ez erabat :)

 [ARGIA.eus/podcast](https://argia.eus/podcast)

